

**GAELERAREN EGOERAREN  
BILAKAERA. IRLANDAKO  
ERREPUBLIKAKO ETA IPAR  
IRLANDAKO GOBERNUEN  
HIZKUNTZA POLITIKA**

Egilea: Julene Moyano Pascual  
Tutorea: Andoni Barreña

### 0. SARRERA

#### 1. IRLANDAKO BANAKETA ADMINISTRATIBOA

- 1.1. Irlandako uhartea
- 1.2. Irlandako Errepublika
- 1.3. Ipar Irlanda

#### 2. GAELERARI BURUZKO OHAR OROKORRAK. GAELTACHT

#### 3. GAELERAREN EZAGUTZA, ERABILERA ETA HERRITARREN HIZKUNTZAREKIKO ATXIKIMENDUA

- 3.1. Irlandako Errepublika
- 3.2. Ipar Irlanda

#### 4. GAELERAREN HISTORIA: IRLANDAKO *LANGUAGE SHIFT* EDO LUZE-ZABALEKO MINTZALDATZEA

- 4.1. Gaeleraren egoera XVI. mendera arte
- 4.2. Gaeleraren egoera XVII.-XIX. mendearen amaierara arte
- 4.3. Gaelera Independentziaren osteko urteetan (1921etik aurrera)

#### 5. GAELERA BIZIBERRITZEKO ARDATZAK: ESKOLA ETA HEDABIDEAK

- 5.1. Eskolaren hastapenak Irlandako Errepublikan eta Ipar Irlandan
- 5.2. Hedabideak: Irratiaren hastapenak

#### 6. GAELERA GAURKO GIZARTEAREN HAINBAT ARLOTAN

- 6.1. Irakaskuntza
- 6.2. Hedabideak
  - 6.1.1. Irratia
  - 6.1.2. Telebista
  - 6.1.3. Prentsa Idatzia
  - 6.1.4. Internet
- 6.3. Justizia
- 6.4. Administrazio publikoa

## 7. GAELERAREN BERRITZE ETA ESTANDARIZAZIOA

7.1. Gaeleraren bilakaera historian zehar

7.2. Gaeleraren estandarizazioa

## 8. GAELERAREN ESTATUS JURIDIKOA. IRLANDAKO ERREPUBLIKAKO ETA IPAR IRLANDAKO GOBERNUEN HIZKUNTZA-POLITIKAK

## 9. ONDORIOAK

## BIOGRAFIA

## IRUDIEN AURKIBIDEA

---

1. irudia: Irlandako probintziak eta konderriak.....	5.or.
2. irudia: Hizkuntza zeltiarrak.....	8.or.
3. irudia: <i>Gaeltacht</i> zonaldeak.....	9.or.
4. irudia: Irlandako Errepublikako gaeleraren ezagutza adin-taldeen arabera, 2006. urtean.....	10. or.
5. irudia: Irlandako Errepublikako gaeleraren ezagutza adin eta sexuaren arabera, 2006. urtean.....	10.or.
6. irudia: Gaeleraren ezagutza <i>Gaeltacht</i> -eko konderrietan, 1996, 2002, 2006. urteetan.....	11.or.
7. irudia: Gaeleraren ezagutza <i>Gaeltacht</i> -eko konderrietan adin-taldeen arabera, 2006. urtean.....	12.or.
8. irudia: Irlandako Errepublikako gaeleraren erabilera adin-taldeen arabera, 2006. urtean.....	13.or.
9. irudia: Gaeleraren erabilera <i>Gaeltacht</i> -eko konderrietan adin-taldeen arabera, 2006. urtean.....	14-15.or.
10. irudia: Ipar Irlandako hiztunen kokapena barrutien arabera, 2001.urtean.....	16.or.
11. irudia: Ipar Irlandako barruti guztietako gaeleraren ezagutza trebetasunen arabera, 2001. urtean....	17.or.
12. irudia: Ipar Irlandako gaeleraren ezagutza adin-taldeen arabera, 1991. urtean.....	18.or.
13. irudia: Ipar Irlandako norberaren identitateari buruzko datuak 1997. urtean.....	20.or.
14. irudia: Egoera etno-linguistikoa, 1500. urtean.....	21.or.
15. irudia: Egoera etno-linguistikoa, 1700. urtean.....	23.or.
16. irudia: Egoera etno-linguistikoa, XVIII. mendearen amaieran.....	23.or.
17. irudia: Egoera etno-linguistikoa, XIX. mendean.....	23.or.
18. irudia: Hiztun kopuruari buruzko datuak, 1799-1981aldian.....	25.or.
19. irudia: Egoera etnolingüistikoa, XX. mendearen hasieran.....	26.or.
20. irudia: <i>Gaeltacht</i> -eko eskola gaeleradunetako ikasleak, 1999-2000 ikasturtean.....	33.or.
21. irudia: Irlandako Naíonraí-ei buruzko datuak, 1999-2000 ikasturtean.....	33.or.
22. irudia: <i>Gaeltacht</i> -etik kanpoko lehen eta bigarren hezkuntzako datuak, 1999-2000 ikasturtean.....	34.or.
23. irudia: Ipar Irlandako ikastetxe eta ikasle-kopurua, 2002-2003 ikasturtean.....	35.or.

## 0. SARRERA

Lan honetan nire helburua izan da gaeleraren gaurko egoera azaltzea, bai Irlandako Errepublikan bai Ipar Irlandan, bietan gaelerak duen estatusa oso diferentea baita. Irlandako Errepublikan lehenengo hizkuntza ofiziala da, Ipar Irlandan, berriz, ez dute hizkuntza ofizialtzat hartzen. Hori dela eta, bietan hizkuntza babesteko eta sustatzeko egindako ahaleginak oso bestelakoak izan dira eta gaur egun ere badira, nahiz eta azken urteotan Ipar Irlandako jarrera zertxobait aldatu den.

Irlandako Errepublikan lehenengo hizkuntza ofiziala izanda, edonork pentsa lezake egoera ezin hobean dagoela. Halere, horrelako estatusa duen hizkuntza batentzat ia pentsaezina bada ere, egoera horretatik oso urrun dago gaiera gaur egun. Gaur egungo erabilerak, Irlandako Errepublikan zein Ipar Irlandan, pentsarazi ahal digu identitate nazionalaren marka bihurtu dela hizkuntza, irlandarrak ingelesak izatetik desberdintzen dituen.

Gaurko egoera deskribatu ahal izateko alde zuretik beste hainbat arlo azaltzeari ezinbestekoa iritzi diot, esaterako *Gaeltacht*-a, mintzaldatze-prozesua, hizkuntzaren bilakaera... Horrela bakarrik ulertu ahal izango dugu zelan orain dela mende batzuk gehiengoaren hizkuntza zena gaur egun hizkuntza gutxitua bilakatu den.

Amaitzeko, txostenean behin eta berriz aipatzen dira Irlandako hainbat zonalde eta konderri. Hori dela eta, lehenengo puntuan Irlandako banaketa administratiboari atal bat eskaini nahi izan diot, horrela irakurri ahala kokatu ahal izateko.


# 1. IRLANDAKO BANAKETA ADMINISTRATIBOA

## 1.1. Irlandako uhartea

Irlandako uharteak 84.412 kilometro karratuko azalera du eta lau probintzian banatuta dago, hiru (Connacht, Leinster eta Munster) Irlandako Errepublikakoak eta bestea (Ulster) Erresuma Batukoa.

Antzina uhartean bost probintzia zeuden, Connacht, Munster, Ulster, Leinster eta Meath, (Meath, Westmeath eta Longford konderrietan) baina, XIX. mendean administratza britainiarrek banaketa berria ezarri zuen eta uhartea 32 konderritan banatu zuen, horietako bederatzik Ulster osatzen zutelarik. Irlandak independentzia eskuratu ostean, 1922an, 26 konderrik Irlandako estatu berria sortu zuten, eta gainerako seiak Britainia Handiaren menpe geratu ziren.

Horregatik gaur egun bi Ulster daude, bata irlandarra eta bestea britainiarra, hiru eta sei probintziatakoak hurrenez hurren.



1. irudia: Irlandako probintziak eta konderriak

## 1.2. Irlandako Errepublika / Éire / Poblacht na h-Éireann

Eirek edo Errepublika Irlandarrak 3.969.558 biztanle ditu, biztanleriaren bi heren inguru herri txiki eta ertainetan bizi dira eta biztanle-dentsitate handiena ekialdeko kostaldean eta hegoaldean dago, horietan hiririk industrializatuenak eta inportanteenak baitaude. Hiriburu eta hiri handiena Dublin (*Baile Átha Cliath*) du, 1.661.185 biztanlerekin. Beste hiri nagusiak Cork (380.000), Limerick (93.321), Galway (71.983), Lisburn (71.465), Waterford (45.775) eta Kilkenny (23.967) dira.

Lehen esan bezala, Irlandako Errepublika lau probintzian eta 26 konderritan banatuta dago:

- **Leinster/Laighean**: Ekialdeko probintzia da, Irlandako populatuena 2.292.939 biztanlerekin (2006). Dublin/Baile Átha Cliath dauka hiriburu. Hamabi konderritan dago azpibanatuta:

1. Carlow/Cheatharlach
2. Dublin/Contae Bhaile Átha Cliath
3. Kildare/Chill Dara
4. Kilkenny/Chill Chainnigh
5. Laois/Laoise
6. Longford/An Longfoirt
7. Louth/Lú
8. Meath/Na Mí
9. Offaly/Uíbh Fhailí
10. Westmeath/Na hIarmhí
11. Wexford/Loch Garman
12. Wicklow/Chill Mhantáin

- **Munster/An Mhumhain**: Hegoaldeko probintzia da, 1.172.170 biztanle ditu eta Cork/Corcaigh hiriburua da. Sei konderritan banatzen da:

1. Clare/An Chláir
2. Cork/Chorcaí
3. Kerry/Chiarraí
4. Limerick/Luimnigh
5. Tipperary/Thiobraid Árann
6. Waterford/Phort Láirge

- **Connacht/Chonnacht**: Mendebaldeko probintzia da, 503.083 biztanle ditu eta Galway/Gaillimh du hiriburua. Bost konderritan banatuta dago:

1. Galway/Na Gaillimhe
2. Leitrim/Liatroma
3. Mayo/Mhaigh Eo
4. Roscommon/Ros Comáin
5. Sligo/Shligigh

- **Ulster**: Iparraldeko probintzia da. Berez, sei konderritan banatuta dago baina, horietako hiru Irlandako Errepublikakoak dira:

1. Cavan/An Cabhán
2. Donegal/Dún na nGall
3. Monaghan/Muineachán

### **1.3. Ipar Irlanda / Tuaisceart Éireann**


Erresuma Batuko lurralde administratiboa da, Ulster lurralde zabalagoaren barruan. Ipar Irlanda geografikoki gehiengo unionista (Erresuma Batua barruan jarraitu nahi dutenak) izan zezan estrukturatua izan zen, baina biztanleria katolikoa proportzioz gehiago hazten ari da, protestanteak gutxitzen ari diren bitartean. 2004ko erroldaren arabera 1.685.267 biztanle ditu eta hiri nagusiak ondokoak dira: Belfast, Derry, Lisburn, Newry eta Armagh.

Sei konderritan banatuta dago:

1. Antrim/Aontroim
2. Armagh/Ard Mhacha)
3. Down/An Dún
4. Fermanagh/Fear Manach
5. Londonderry/Doire
6. Tyrone/Tír Eoghain

## 2. GAELERARI BURUZKO OHAR OROKORRAK

Gaelera, gaeliko irlandarra (*Gaeilge na hÉireann*) edo irlandera, Irlandan mintzatzen den hizkuntza zeltikoa da. Eskoziako mintzairaren haurridea, anaia bizkia; eta Galeseko Kimraegeraren eta Breéis (Bretainia)ko brezhonegeraren lehengusua. Man uhartean, aldiz, duela urte gutxi desagertutako manxera eta Kernewek (Cornwall) lur-muturreko kornubiera (orain dela bi mende desagertutakoa), multzo zeltiko berberaren adaxkak dira.



2. irudia. Hizkuntza zeltiarrak

Gero ikusiko dugunez, gaelera XVII. mendera arte Irlandako hizkuntza nagusia izan zen. Gaur egun, ordea, hizkuntza-komunitatearen inguruan berba egiteko orduan, ezin da ahaztu **Gaeltacht** izeneko eremua, bertako eremu geografiko gaeleraduna definitzen baitu. Berrogeita hamarreko hamarkadan finkatu ziren lurralde horretako mugak, orduan, eskualde honek bere baitan hiztun gehienak hartzen baitzituen. Horrela, Cork, Kerry, Galway (Aran, Connemara), Mayo eta Donegal konderriak hartu zituen bere baitan.





3. irudia: Gaeltacht zonaldeak

*Gaeltacht*-en gaclera beti mintzatu da eta bere erabilera, Irlandakoaren batez bestekoa baino askoz ere handiagoa da. Gaur egun Irlandako Errepublikako biztanleriaren %2,4 biltzen du eta bertako ia biztanle guztiak dira elebidunak (gaclera eta ingelesa), baina adineko gehienak askoz hobeto moldatzen dira gacleraz ingelesez baino. *Údaras na Gaeltachta*-ren<sup>1</sup> arabera 30.000 biztanlerentzat ohiko hizkuntza da eta 25.000k gaitasuna izanda ere, ez dute ohiko hizkuntza bezala.

Ipar Irlandak ere badauka bere *Gaeltacht* txikia: *The Shaws Road Gaeltacht* Belfast-eko mendebaldean. 1960an sortu zen, eta 5 familiakoa izatetik 20 familiakoa izatera igaro da. Gero ikusiko dugunez, eurek sortu zuten lehenengo eskola gaclikoduna, *Bunscoil Phobal Feirste*.

### 3. GAELERAREN EZAGUTZA, ERABILERA ETA HERRITARREN HIZKUNTZAREKIKO ATXIKIMENDUA

#### 3.1. Irlandako Errepublika

1996ko erroldan lehenengo aldiz ezagutza zein erabilerari buruzko datuak jaso ziren, eta beste horrenbeste egin zen hurrengoetan, 2002 eta 2006an hain zuzen ere, datuak alderatu ahal izateko. Erabilerari buruzko galdera 1996 eta 2002an formulatu

<sup>1</sup> Gaeltacht-eko autoritatea

bazen ere, 2006ko erroldan formulatzeko modua aldatu egin zen ohiko hiztunak eta hezkuntza-sistemaren barruan zeudenak desberdindu ahal izateko.

## - Ezagutza


2006ko erroldaren arabera, 3 urtetik gorako 1.66 milioi lagunek, galdetutakoen %40,8k, gaelera badakitela aitortu dute, 2002ko %42.8ren eta 1996ko %43.5en aldean.

Adinari dagokionez, 10-14 eta 15-19 adin-taldeetan, hau da eskola-garaian dauden adin-taldeetan, agertzen dira ezagutza-portzentaje handienak. Eskola-garaia osteko adin-taldeetan ezagutzak behera egiten du, 45-54koen taldean berriro gora egiteko. Handik aurrera, adinean aurrera egin ahala, ezagutzak behera egiten du etengabe.

Age Group	Total	Ability to speak Irish			Irish speakers as a percentage of total
		Irish speakers	Non-Irish speakers	Not stated	
Persons					
3- 4 years	120,050	14,773	93,122	12,155	13.7
5- 9 "	288,325	171,290	105,795	11,240	61.8
10-14 "	273,872	194,337	73,846	5,689	72.5
15-19 "	290,257	184,847	101,016	4,394	64.7
20-24 "	342,475	149,122	186,613	6,740	44.4
25-34 "	722,439	264,516	443,726	14,197	37.3
35-44 "	623,434	204,541	407,991	10,902	33.4
45-54 "	521,813	191,600	321,093	9,120	37.4
55-64 "	407,055	138,483	259,891	8,681	34.8
65 years and over	467,926	143,281	307,081	17,564	31.8
Total	4,057,646	1,656,790	2,300,174	100,682	41.9

#### 4. irudia: Irlandako Errepublikako gaeleraren ezagutza adin-taldean arabera, 2006. urtean


Sexuari dagokionez, proportzioan, emakumeetan hiztun gehiago daude (%45.3) gizonetan baino (%38.4), 2002koan %45.9 eta %39.7 hurrenez hurren. 1996, 2002 zein 2006an datu hau horrelakoa izan da adin-talde guztietan, batik batik 15-19 adin-taldean



#### 5. irudia: Irlandako Errepublikako gaeleraren ezagutza adinaren eta sexuaren arabera, 2006. urtean

Hiztun-dentsitateari dagokionez, lehen esan bezala, jatorrizko gaeleradun gehienak *Gaeltacht* izeneko zonaldean bizi dira. *Gaeltacht*-ekoak ez direnen artean, normalena da jatorriz *Gaeltacht*-ekoak izatea eta handik kanpo bizi behar izatea, edota gaeleradun berriak izatea. Haietako asko eskola-munduko eraginpean daude eta, beraz, euren seme-alabak gaeleraz hezten dituzte. Halere, nahiz eta eskola gaeleradunetara joaten diren ume gehienak familia ingelesdunekoak izan, hizkuntza-komunitatearen kidetzat hartzen dira. Azaldutakoagatik ezinbestekoa da *Gaeltacht*-eko datuak ezagutzea.

1991ko erroldan *Gaeltacht*-eko biztanleria 83.268koa zen, gehienak Donegal/Dún na nGall, Mayo/Mhaigh Eo, Galway/na Gaillimhe, Kerry/Chiarraí eta Cork/Chorcaí mendebaldeko konderrietan bizi zirelarik. *Gaeltacht*-en gaelera beti mintzatu da eta bere erabilera Irlandakoarekin batez bestekoa baino askoz ere handiagoa da. Hori argi erakusten du 2006ko erroldak. Zonalde honetan 3 urtetik gorako biztanleen %70,8k dakite gaelera, baina proportzio hau 2002ko erroldak adierazten zuena baino txikiagoa da (%72.6). Meath-en eta Waterford-en izan ezik (alderik txikienak), *Gaeltacht*-en gaeleradun-kopurua jaitsi da. Hona hemen konderrien araberako datuak:



6. irudia: Gaeleraren ezagutza *Gaeltacht*-eko konderrietan, 1996, 2002, 2006. urteetan

Gaeltacht Area	Total	Age Group									
		3 - 4 years	5 - 9 years	10-14 years	15-19 years	20-24 years	25-34 years	35-44 years	45-54 years	55-64 years	65 years and over
Cork County	3,660	95	277	268	264	258	546	569	497	380	506
Irish speakers	2,860	61	246	243	242	217	368	413	372	279	419
Non-Irish speakers	771	32	24	21	21	40	175	155	118	99	86
Not stated	29	2	7	4	1	1	3	1	7	2	1
Irish speakers as a percentage of total*	78.8	65.6	91.1	92.0	92.0	84.4	67.8	72.7	75.9	73.8	83.0
Donegal County	22,877	638	1,652	1,671	1,604	1,168	2,637	3,258	3,075	2,962	4,212
Irish speakers	16,909	371	1,433	1,486	1,316	826	1,840	2,190	2,144	2,041	3,262
Non-Irish speakers	5,801	235	203	173	280	335	782	1,054	918	899	922
Not stated	167	32	16	12	8	7	15	14	13	22	28
Irish speakers as a percentage of total*	74.5	61.2	87.6	89.6	82.5	71.1	70.2	67.5	70.0	69.4	78.0
Galway City	13,737	406	890	847	1,282	2,106	2,979	1,986	1,623	911	707
Irish speakers	6,878	70	624	650	880	1,013	1,138	795	824	509	375
Non-Irish speakers	6,684	303	243	186	394	1,081	1,808	1,180	786	390	313
Not stated	175	33	23	11	8	12	33	11	13	12	19
Irish speakers as a percentage of total*	50.7	18.8	72.0	77.8	69.1	48.4	38.6	40.3	51.2	56.6	54.5
Galway County	29,447	861	2,229	2,309	2,295	1,853	4,034	4,610	4,508	3,360	3,388
Irish speakers	22,377	464	1,937	2,079	2,010	1,365	2,762	3,135	3,361	2,530	2,734
Non-Irish speakers	6,772	352	270	208	268	476	1,235	1,442	1,120	804	597
Not stated	298	45	22	22	17	12	37	33	27	26	57
Irish speakers as a percentage of total*	76.8	56.9	87.8	90.9	88.2	74.1	69.1	68.5	75.0	75.9	82.1
Kerry County	8,446	171	534	594	590	471	1,077	1,235	1,372	1,166	1,236
Irish speakers	6,170	105	481	552	530	320	696	816	980	789	901
Non-Irish speakers	1,989	49	38	33	51	141	353	368	339	326	291
Not stated	287	17	15	9	9	10	28	51	53	51	44
Irish speakers as a percentage of total*	75.6	68.2	92.7	94.4	91.2	69.4	66.3	68.9	74.3	70.8	75.6
Mayo County	10,523	253	654	794	815	604	1,039	1,349	1,590	1,463	1,962
Irish speakers	6,853	98	555	691	659	383	599	774	939	856	1,299
Non-Irish speakers	3,594	137	95	101	154	217	431	570	640	595	654
Not stated	76	18	4	2	2	4	9	5	11	12	9
Irish speakers as a percentage of total*	65.6	41.7	85.4	87.2	81.1	63.8	58.2	57.6	59.5	59.0	66.5
Meath County	1,603	65	168	135	142	90	180	285	250	139	149
Irish speakers	976	26	132	108	112	57	93	147	146	73	82
Non-Irish speakers	607	36	33	25	29	31	86	133	103	65	66
Not stated	20	3	3	2	1	2	1	5	1	1	1
Irish speakers as a percentage of total*	61.7	41.9	80.0	81.2	79.4	64.8	52.0	52.5	58.6	52.9	55.4
Waterford County	1,569	49	135	178	121	87	195	265	215	149	175
Irish speakers	1,242	31	127	169	111	74	148	188	160	111	123
Non-Irish speakers	321	17	8	8	10	13	47	77	53	37	51
Not stated	6	1	-	1	-	-	-	-	2	1	1
Irish speakers as a percentage of total*	79.5	64.6	94.1	95.5	91.7	85.1	75.9	70.9	75.1	75.0	70.7
All Gaeltacht Areas	91,862	2,538	6,539	6,796	7,113	6,637	12,687	13,557	13,130	10,530	12,335
Irish speakers	64,265	1,226	5,535	5,978	5,860	4,255	7,644	8,458	8,926	7,188	9,195
Non-Irish speakers	26,539	1,161	914	755	1,207	2,334	4,917	4,979	4,077	3,215	2,980
Not stated	1,058	151	90	63	46	48	126	120	127	127	160
Irish speakers as a percentage of total*	70.8	51.4	85.8	88.8	82.9	64.6	60.9	62.9	68.6	69.1	75.5

# As defined by the Gaeltacht Areas Orders, 1956-1982  
\* Excluding not stated

## 7. irudia: Gaeleraren ezagutza Gaeltacht-eko konderrietan adin-taldeen arabera, 2006. urtean

### - Erabilera

Gaelera dakitela aitortu dutenen artean, 485.000 inguru (%29,3) egunero mintzatzen dira hezkuntza-sistemaren barruan eta 53.500 (%3,2) hezkuntza-sistematik kanpo. Portzentaje bateratua (%32,5) 2002koa baino handiagoa da (%21,6). 1996 eta

2002. urteen artean eguneroko hiztunen portzentajearen beheranzko joera ikusita, argi dago 2006ko erroldan sartutako galdera berriaren eragina zenbaterainokoa den.

2006an eskola-adinenean dagoen 5-19 urte bitarteko taldeak osatzen du ohiko hiztunen %80, 2002an %76,8 zen.

Age Group	Total	Frequency of speaking Irish						
		Daily, within education system		Outside education system				
		Speaks Irish within education system only	Speaks Irish also outside education	Daily	Weekly	Less often	Never	Not stated
Persons								
3- 4 years	14,773	9,333	759	1,152	1,293	1,636	187	413
5- 9 "	171,290	143,763	6,530	1,804	7,366	7,582	1,983	2,262
10-14 "	194,337	156,306	7,140	1,927	9,292	11,845	5,043	2,784
15-19 "	184,847	98,479	6,166	3,103	11,300	37,058	25,649	3,092
20-24 "	149,122	8,329	1,230	4,341	8,767	67,019	56,680	2,756
25-34 "	264,516	11,890	2,421	8,674	14,019	113,569	110,288	3,655
35-44 "	204,541	9,231	2,599	9,334	14,209	94,064	72,386	2,718
45-54 "	191,600	9,361	2,355	7,975	12,457	95,748	60,704	3,000
55-64 "	138,483	4,629	1,416	6,520	8,964	74,525	39,807	2,622
65 years and over	143,281	1,886	989	8,641	9,422	78,528	40,119	3,696
Total	1,656,790	453,207	31,605	53,471	97,089	581,574	412,846	26,998

**8. irudia: Irlandako Errepublikako galearen erabilera adin-taldean arabera, 2006. urtean**

*Gaeltacht*-en %57k hitz egiten dute egunero eta %10.2k aitortzen dute asteroko maiztasunez mintzatzen direla. Proportzio horiek 2002an %55.6 eta %11 ziren, hurrenez hurren. Dena den, kontuan hartu behar da 2006ko erroldan izandako galdera-aldaketa, horrek eragina izan ahal lezakeelako emaitzetan. Bakarrik %23k baino gehiagok hitz egiten dute noizean behin eta %6.7k aitortu zuten ez dutela inoiz hitz egiten.

Galearak *Gaeltach*-eko isolatutako alde hauetan bizirautea lortu badu ere, erabilera-esparruak gero eta murriztagoak dira. Oso alde bakanetan erabilia izateak eragin negatiboak dakartzkio hizkuntzaren garapenari eta hau oso nabarmena da belaunaldiz belaunaldi eskasagoa den hizkuntzaren aberastasunean eta gaurkotutako terminologia eskasean.

Gainera, azken hamarkadetan galerarako azken gotorlekutzat har zitezkeen esparru hauetan industria sortzeak (normalean ingeles-hiztunek edo gaelikodunak ez

direnek kudeatuak) ekarri du lan-munduan ere ingeles-terminologia erabiltzen hastea, nahiz eta kontzeptu horiek adierazteko gaierazko neologismoak lehenagotik egon (Mac an Iomaire 1983:9-18). Hortaz, hizkuntza-aldaketa hau geldiarazteko neurri egokiak hartzea eta hizkuntza-politika egokia abian jartzea ezinbestekoa da *Gaeltacht* gaeleraren azken gotorlekua izaten jarraitzekotan.

Hona hemen 2006ko erroldan argitaratutako grafiko bat *Gaeltacht*-eko erabilerari buruz konderriz konderriz:

Gaeltacht Area	Total	Age Group									
		3 - 4 years	5 - 9 years	10-14 years	15-19 years	20-24 years	25-34 years	35-44 years	45-54 years	55-64 years	65 years and over
Cork County	3,660	95	277	268	264	258	546	569	497	380	506
Irish speakers	2,860	61	246	243	242	217	368	413	372	279	419
Non-Irish speakers	771	32	24	21	21	40	175	155	118	99	86
Not stated	29	2	7	4	1	1	3	1	7	2	1
Irish speakers as a percentage of total*	78.8	65.6	91.1	92.0	92.0	84.4	67.8	72.7	75.9	73.8	83.0
Donegal County	22,877	638	1,652	1,671	1,604	1,168	2,637	3,258	3,075	2,962	4,212
Irish speakers	16,909	371	1,433	1,486	1,316	826	1,840	2,190	2,144	2,041	3,262
Non-Irish speakers	5,801	235	203	173	280	335	782	1,054	918	899	922
Not stated	167	32	16	12	8	7	15	14	13	22	28
Irish speakers as a percentage of total*	74.5	61.2	87.6	89.6	82.5	71.1	70.2	67.5	70.0	69.4	78.0
Galway City	13,737	406	890	847	1,282	2,106	2,979	1,986	1,623	911	707
Irish speakers	6,878	70	624	650	880	1,013	1,138	795	824	509	375
Non-Irish speakers	6,684	303	243	186	394	1,081	1,808	1,180	786	390	313
Not stated	175	33	23	11	8	12	33	11	13	12	19
Irish speakers as a percentage of total*	50.7	18.8	72.0	77.8	69.1	48.4	38.6	40.3	51.2	56.6	54.5
Galway County	29,447	861	2,229	2,309	2,295	1,853	4,034	4,610	4,508	3,360	3,388
Irish speakers	22,377	464	1,937	2,079	2,010	1,365	2,762	3,135	3,361	2,530	2,734
Non-Irish speakers	6,772	352	270	208	268	476	1,235	1,442	1,120	804	597
Not stated	298	45	22	22	17	12	37	33	27	26	57
Irish speakers as a percentage of total*	76.8	56.9	87.8	90.9	88.2	74.1	69.1	68.5	75.0	75.9	82.1
Kerry County	8,446	171	534	594	590	471	1,077	1,235	1,372	1,166	1,236
Irish speakers	6,170	105	481	552	530	320	696	816	980	789	901
Non-Irish speakers	1,989	49	38	33	51	141	353	368	339	326	291
Not stated	287	17	15	9	9	10	28	51	53	51	44
Irish speakers as a percentage of total*	75.6	68.2	92.7	94.4	91.2	69.4	66.3	68.9	74.3	70.8	75.6
Mayo County	10,523	253	654	794	815	604	1,039	1,349	1,590	1,463	1,962
Irish speakers	6,853	98	555	691	659	383	599	774	939	856	1,299
Non-Irish speakers	3,594	137	95	101	154	217	431	570	640	595	654
Not stated	76	18	4	2	2	4	9	5	11	12	9
Irish speakers as a percentage of total*	65.6	41.7	85.4	87.2	81.1	63.8	58.2	57.6	59.5	59.0	66.5
Meath County	1,603	65	168	135	142	90	180	285	250	139	149
Irish speakers	976	26	132	108	112	57	93	147	146	73	82
Non-Irish speakers	607	36	33	25	29	31	86	133	103	65	66
Not stated	20	3	3	2	1	2	1	5	1	1	1
Irish speakers as a percentage of total*	61.7	41.9	80.0	81.2	79.4	64.8	52.0	52.5	58.6	52.9	55.4
Waterford County	1,569	49	135	178	121	87	195	265	215	149	175
Irish speakers	1,242	31	127	169	111	74	148	188	160	111	123
Non-Irish speakers	321	17	8	8	10	13	47	77	53	37	51
Not stated	6	1	-	1	-	-	-	-	2	1	1
Irish speakers as a percentage of total*	79.5	64.6	94.1	95.5	91.7	85.1	75.9	70.9	75.1	75.0	70.7
All Gaeltacht Areas	91,862	2,538	6,539	6,796	7,113	6,637	12,687	13,557	13,130	10,530	12,335
Irish speakers	64,265	1,226	5,535	5,978	5,860	4,255	7,644	8,458	8,926	7,188	9,195
Non-Irish speakers	26,539	1,161	914	755	1,207	2,334	4,917	4,979	4,077	3,215	2,980
Not stated	1,058	151	90	63	46	48	126	120	127	127	160
Irish speakers as a percentage of total*	70.8	51.4	85.8	88.8	82.9	64.6	60.9	62.9	68.6	69.1	75.5

Gaeltacht Area	Total	Age Group									
		3 - 4 years	5 - 9 years	10-14 years	15-19 years	20-24 years	25-34 years	35-44 years	45-54 years	55-64 years	65 years and over
Mayo County	6,853	98	555	691	659	383	599	774	939	856	1,299
Daily, within education system											
Speaks Irish within education system only	1,466	52	378	467	338	27	51	40	33	26	54
Speaks Irish also outside education	302	8	63	68	50	6	15	18	28	23	23
Outside education system											
Daily	1,031	14	23	34	31	49	80	138	191	183	288
Weekly	902	8	32	49	54	53	90	126	139	148	203
Less often	2,489	13	44	60	133	176	271	372	437	383	600
Never	529	–	6	8	40	60	84	69	96	72	94
Not stated	134	3	9	5	13	12	8	11	15	21	37
Meath County	976	26	132	108	112	57	93	147	146	73	82
Daily, within education system											
Speaks Irish within education system only	203	11	64	48	43	7	6	7	11	4	2
Speaks Irish also outside education	134	6	43	32	15	3	8	9	15	2	1
Outside education system											
Daily	213	5	12	13	16	9	15	44	41	19	39
Weekly	107	3	4	4	8	6	15	27	17	11	12
Less often	216	–	5	5	17	23	28	41	51	29	17
Never	81	–	–	5	11	9	20	17	7	6	6
Not stated	22	1	4	1	2	–	1	2	4	2	5
Waterford County	1,242	31	127	169	111	74	148	188	160	111	123
Daily, within education system											
Speaks Irish within education system only	290	17	88	75	50	9	16	11	13	7	4
Speaks Irish also outside education	153	2	20	79	18	9	4	3	9	7	2
Outside education system											
Daily	304	9	11	11	18	21	42	63	54	36	39
Weekly	162	2	4	2	12	14	21	38	33	16	20
Less often	250	1	3	2	9	16	45	53	42	32	47
Never	63	–	–	–	3	4	18	17	8	8	5
Not stated	20	–	1	–	1	1	2	3	1	5	6
All Gaeltacht Areas	64,265	1,226	5,535	5,978	5,860	4,255	7,644	8,458	8,926	7,188	9,195
Daily, within education system											
Speaks Irish within education system only	13,982	509	3,514	3,645	2,407	385	640	695	776	618	793
Speaks Irish also outside education	5,179	178	1,005	1,053	783	159	385	492	484	330	310
Outside education system											
Daily	17,687	332	493	566	821	1,006	2,206	2,778	3,086	2,692	3,707
Weekly	6,564	84	190	258	416	520	885	1,127	1,100	905	1,079
Less often	15,150	85	200	293	940	1,493	2,439	2,524	2,607	2,056	2,513
Never	4,313	1	31	79	385	599	954	698	694	394	478
Not stated	1,390	37	102	84	108	93	135	144	179	193	315

# As defined by the Gaeltacht Areas Orders, 1956-1982

9. irudia: Gaeleraren erabilera Gaeltacht-eko konderrietan adin-taldean arabera, 2006. urtean

## - Hizkuntzarekiko atxikimendua

Nahiz eta Irlandako Errepublikan lehenengo hizkuntza ofiziala izan, praktikan irlandar guztiek hitz egiten dute ingelesa eta gutxiengo batek soilik egiten du gaeleraz. Hala eta guztiz ere, irlandarrek hizkuntzarekiko atxikimendu berezia daukate; izan ere gehienek euren hizkuntza indartzea nahi lukete eta maiz erroldetan eta bestelako ikerketetan aitortzen dute ez daukaten ezagutza (nahiz eta ikasteko inolako ahaleginik


egin ez). Irlandako egoera zaila da eta kontraesanek beteta dago, askok hobekien berba egiten duten hizkuntzari (ingelesari) uko egiten baitiote euren identitatearen sinboloa ez delakoan. Euren nazionalitatearen sinbolotzat hartzen dute baina hizkuntzarekiko jarrera oso bestelakoa da gehienetan.

### 3.2. Ipar Irlanda

Ipar Irlandan 1991ko erroldan lehenengo aldiz gaierari buruzko galderak agertu ziren. Aurten, 2007an, errolda berria egin da baina oraindik ez dira datuak argitaratu, beraz, 1991ko eta 2001eko datuak hartuko ditugu azterketa egiteko. Argitzekoa da, erroldan ezagutzari buruzko datuak agertzen direla, baina ez erabilerari buruzkoak. Erabilerari dagokionez, *Euromosaic* ikerketa zentroak<sup>2</sup>, 1991ko errolda kontuan hartuta, egindako ikerketa bateko datuak aztertuko ditugu. Ikerketa horretan urte horretako erroldan aitortutako ezagutza hainbat esparrutako erabileran zelan islatzen den aztertu zuten.

#### - Ezagutza

2001eko erroldan 3 urtetik gorako 1.617.957 biztanleetatik 167.490ek, %10,35ek, aitortu zuten zerbait jakitea, ezagutza-maila gorabehera. Horietatik 75.125ek (populazioaren %4,64k eta zerbait dakitenen %44,85ek), adierazi zuten hizkuntza-gaitasun osoa (hitz egin, irakurri, idatzi eta ulertu) zeukatela. Hona hemen barruti eta trebetasunen araberrako sailkapena:



<sup>2</sup> Ikusi: <http://www.uoc.es/euromosaic/web/document/irlandes/an/e1/e1.html> "Irish in Northern Ireland" (1997-08-20)



**11. irudia: Ipar Irlandako barruti guztietako gaeleraren ezagutza trebetasunaren arabera, 2001. urtean**

	3 urteko gorako pertsona guztiak	3 urteko gorako pertsonak					Zerbait daki	Ez daki ezer
		Bakarrik ulertzen du	Hitz egiten du baina ez daki irakurtzen edo idazten <sup>1</sup>	Hitz egiten eta irakurtzen du baina ez daki idazten <sup>1</sup>	Hitz egiten, irakurtzen, ulertzen eta idazten du	Beste trebetasun-konbinazioa dauka		
<b>Ipar Irlanda</b>	<b>1.617.957</b>	<b>36.479</b>	<b>24.536</b>	<b>7.183</b>	<b>75.125</b>	<b>24.167</b>	<b>167.490</b>	<b>1.450.467</b>
Antrim	46220	795	524	188	1630	500	3637	42583
Ards	70517	529	285	87	879	348	2128	68389
<b>Armagh</b>	<b>51875</b>	<b>1707</b>	<b>1076</b>	<b>323</b>	<b>3408</b>	<b>1123</b>	<b>7637</b>	<b>44238</b>
Ballymena	56422	694	421	109	1191	400	2815	53607
Ballymoney	25759	391	271	73	785	292	1812	23947
Banbridge	39643	565	319	95	1082	377	2438	37205
<b>Belfast</b>	<b>267716</b>	<b>7.430</b>	<b>5.493</b>	<b>1.610</b>	<b>17.639</b>	<b>4.145</b>	<b>36.317</b>	<b>231.399</b>
Carrickfergus	36231	193	113	35	261	103	705	35526
Castlereagh	63951	611	390	147	1189	402	2739	61212
Coleraine	54135	678	473	101	1632	503	3387	50748
Cookstown	31203	1052	618	168	1824	835	4497	26706
Craigavon	77358	1643	1218	363	3610	1239	8073	69285
<b>Derry</b>	<b>100.423</b>	<b>2.876</b>	<b>1.762</b>	<b>590</b>	<b>6.459</b>	<b>2.125</b>	<b>13.812</b>	<b>86.611</b>
Down	61272	1518	980	234	2408	859	5999	55273
Dungannon	45598	1722	1259	347	4074	1309	8711	36887
Fermanagh	55215	1567	934	320	2995	1295	7111	48104
Larne	29719	297	227	63	484	238	1309	28410
Limavady	30972	760	525	135	1337	600	3357	27615
Lisburn	104163	2022	1398	342	3520	881	8163	96000
Magherafelt	37996	1434	1059	275	2932	964	6664	31332
Moyle	15279	529	299	94	941	333	2196	13083
<b>Newry and Mourne</b>	<b>83.130</b>	<b>3.576</b>	<b>2.453</b>	<b>757</b>	<b>7.545</b>	<b>2.634</b>	<b>16.965</b>	<b>66.165</b>
Newtownabbey	77043	705	482	150	1503	497	3337	73706
North Down	73802	543	261	100	743	326	1973	71829
Omagh	45811	1689	1097	319	3182	1128	7415	38396
Strabane	36504	953	599	158	1872	711	4293	32211

Oharrak:

(1) Hitz egiteko, irakurtzeko edo idazteko gaitasuna izateak ez du esan nahi ahozko gaelera ulertzeko gaitasuna duenik, horrela adierazten ez bada, behintzat. Kategoria honetako lagunek, agian, ez dute ahozko gaelera ulertzen.

Halere, adituen arabera 13.000-15.000 dira jakite-maila handia duten pertsonak eta horien artean, ezinbestean, hezkuntza-sistemaren barruan daudenak hartu behar dira kontuan, 4.000 ume inguru baitzeuden matrikulatuta gaelerazko eremuan (haur-

eskola, aurre-eskola, lehenengo zein bigarren mailatan). Gainera, mapan agertzen den moduan, gaitasun osoa duten hiztunak oso sakabanatuta daude Ipar Irlanda osoan zehar.

1991ko erroldako ezagutzari buruzko datuen arabera, 131.975 lagunek adierazi zuten galeraz zerbait jakitea. Horietatik 79.052k, gutxi gorabehera, %59,9k, hizkuntza-gaitasun osoa zeukatela adierazi zuten, eta portzentaje horretatik ia-ia %48k eskola garaiko edo horren osteko adinekoak ziren (3-24 urte bitartekoak).

Adin-taldea	Gaeleradunak	Adin-taldearekiko portzentajea	Gaeleradun guztiekiko portzentajea
3-14	30.903	%10	%23,4
	3-4	1.586	%3
	5-9	7.648	%5,9
	10-14	21.669	%16,9
15-24	32.426	%12,8	%24,6
25-44	39.784	%9,2	%30,1
45-64	19.861	%6,5	%15
>65	9.000	%4,5	%6,8

12. irudia. Ipar Irlandako gaeleraren ezagutza adin-taldean arabera, 1991. urtean

## - Erabilera

Lehen esan bezala, erabilerari buruzko daturik ez da jasotzen erroldetan eta horregatik *Euromosaic*-ek egindako ikerketa baten hainbat emaitza aipatuko dira. Ikerketa egiteko Ipar Irlanda osoko lagin batzuk aukeratu zituzten eta erabilera aztertu zuten hainbat esparrutan, bai publikoak bai pribatuak. Horrela egiaztatu ahal izan zuten 1991ko erroldan adierazitako ezagutza-portzentajeak ez zirela ezertarako islatzen erabileran.

Galdetutako %80ren ama-hizkuntza ingelesa da, %18k batera ikasi zituzten gaelera eta ingelesa eta %3rentzat bakarrik gaelera da ama-hizkuntza. Gaelera dakitenen artean %80k ikasi zuten gaelera eskolan, nahiz eta beste leku batzuetan sakondu edo hobetu.

Etxeko erabilerari dagokionez, gurasoen %6k egiten dute gaeleraz euren artean eta %16k bietan, gaeleraz eta ingelesez. Seme-alabekin, ordea, portzentaje hauek gora egiten dute nabarmen %12k egiten baitute gaeleraz eta %27k gaeleraz eta ingelesez. Datu hau oso inportantea da etxeko hizkuntza-ohiturak aldatzen ari dira eta.

Lagunen arteko harremanetan %3 aritzen dira denbora osoan gaieraz bakarrik, %50 noizean behin proportzio desberdinetan, eta %47k ez du inoiz gaiera erabiltzen lagun arteko harremanetan. Horietako askok azaldu zuten ez daukatela norekin aritu gaieraz, nahiz eta eurek jakin. Kaleko erabilerak, iraganarekin alderatuta, gora egin du. Iraganean %3k egiten zuten normalean eta %16k noizean behin. Gaur egun, ordea, normalean egiten dutenak %7 dira eta noizean behin %18.

Beste esparru batzuetan, esaterako elizan, erabilerak behera egin du. Iraganean normalean %14k egiten zuten eta noizbehinka %36k eta gaur egun %11k eta %35ek hurrenez hurren. Datu hau oso adierazgarria da kontuan izaten badugu galdetutakoen %78 joaten direla normalean elizara eta eliza katolikoak duen rol sinbolikoa. Klubetan, esaterako, erabilerak apur bat egin du gora, nahiz eta hau oso nabarmena ez izan.

Ikerketa honetako adibide hauek eta beste batzuk ikusita, oro har, ondoriozta daiteke bakarrik gaiera erabiltzeko eremuak gero eta urriagoak direla eta komunitate-hizkuntza izatetik inguru pribatuko hizkuntza izatera pasatzen ari dela, askotan horretarako beren-beregi sortutako lekuetan (*Gaelic League, Local Feis...*). Hizkuntza-komunitatea guztiz sakabanatuta dago Ipar Irlanda osoan zehar. Baina, sakabanatuta badago ere, zenbait gune sortzen ari dira hainbat zonalde jakinetan. Adibidez, Belfast-en, Derry-n eta nekazaritza gune batzuetan, hala nola, Dungannon, Magherafelt eta Newry eta Mourne. Era berean, ezin dugu ahaztu komunitate horiek, gehienetan, oso enklabe sozio-politiko zehatzekin erlazionatuta daudela, hizkuntza eta nazionalismoaren arteko lotura handia baita.

### **- Hizkuntzarekiko atxikimendua**

1991ko erroldan norberaren identitate etnikoari buruzko galderarik ez zen egin, beraz ez daukagu datu ofizialik identitatea eta hizkuntzarekiko atxikimendua erlazionatzeko. Halere, errolda honetako datuek adierazten digute hiztun gehienak, %89 baino gehiago, katolikoak direla. Katoliko guztiak ez dira gaieradunak, baina katolikoek %20.6k horrela adierazi zuten.

*Euromosaic*-ek egindako ikerketan honi buruzko ondorioak ere atera ziren. Norberaren identitateari buruzko galderari erantzun ziotenen artean hauek dira erantzunak:

	Bai	Ez
<b>Irlandarra</b>	%87	%13
<b>Britainiarra</b>	%15	%85
<b>Ingelesa</b>	%2	%98
<b>Europearra</b>	%32	%68
<b>Bestelakoa</b>	%7	%93


13. irudia: Ipar Irlandako norberaren identitateari buruzko datuak, 1997. urtean

Beraz, gehienek irlandartzat daukate euren burua. Halere, gehienek pentsatzen dute gaelera hildako hizkuntza dela eta lanean ez litzatekeela zertan inolako meritua izan, hau da, lanean mailaz igotzeko ez luketela kontuan hartu behar. Beste hizkuntza batzuk ikastea gaelera baino baliagarriagozat hartzen dute gehienek. Aldi berean ez dute pentsatzen zaharkitutako hizkuntza denik edo negozio zein zientzia munduan balio ez duenik. Harritzeko modukoa den datu bat hauxe da: askok ez dute pentsatzen umeek gaelera ikasi behar dutenik ezta gaelera jakiteagatik pertsona bat irlandarragoa denik. Hau da, oro har, gaeleraren balio sinbolikoa oso mugatua da.

#### 4. GAELERAREN HISTORIA: *LANGUAGE SHIFT* EDO LUZE-ZABALEKO MINTZALDATZEA

Herrialde bateko historia eta hizkuntzaren arteko lotura estua apurtezina da. Irlandaren kasuan, Ingalaterrak zanpatua izan zen eta horren gaeleraren gainbehera ekarri zuen. Ondoren jasandako goseteak ere izugarrizko eragin negatiboa izan zuen. Joera hau XX. mendean aldatu zen, 1922an independentzia lortu eta Irlandako Errepublika sortu ostean.

Puntu honetan aztertuko dugu zenbaterainokoa izan zen gertaera hauen guztien eragina bertako hizkuntzan, zelan ingelesaren *language spread* edo hedapen-zabalkundea eta *language shift* edo luze-zabaleko mintzaldatzea gertatu ziren. Fenomeno horiek ez ziren kolpean eta erabat (gizarte-bizitzaren esparru guztietan) jazo, baizik eta Irlandako ingurumen soziala, kulturala eta politikoa aldatu ziren heinean, hizkuntza gaitasunak, jarrera eta erabilera ere aldatzen joan ziren.



14. irudia: Egoera etno-linguistikoa, 1500. urtean

#### 4.1. Gaeleraren egoera XVI. mendera arte

Gaelera XVI. mendearen amaierara arte Irlandako hizkuntza nagusia izan zen. *Clontarf* Batailan (1014), bikingoek jasandako porrotaren ostean, Irlandako hizkuntzak eta kulturak egonkortasun garai laburra bizi izan zuten. Bikingoen inbasioek garai horretan gutxi eragin zioten hizkuntzari, eragin bakarra lexikoaren mailegutzan izan zelarik.

XII. mendeko anglo-normandiarren erasoaldiek eragin

handiagoa izan zuten Irlandako gizartean. Lehenengo aldiz Ingalaterrak Irlandan politikoki finkatzea eta denbora gutxian irlaren hiru laurdenak menperatzea lortu zuen. Garai horretakoak dira, hain zuzen ere, hiri berrien sorrera eta jadanik zeuden hirien hazkundea. Ingelesa nagusitu zen hirietan eta hainbat esparrutan erabiltzen hasi zen (hizkuntza administratiboan, legalean, militarrean, arkitektonikoan...) (Ó Murchú, 1985:22). Halere, hori ez zen nahikoa izan mintzaldatzea gertatzeko: nekazaritzaguneetan gaelerak lekua hartua zion ingelesari, gainera, aristokrazia elebiduna zen. Denbora aurrera joan ahala, normandiarrek asimilatuak izan ziren edo Dublin inguruko aldeetan bakartuak.

XVI. mendean Ingalaterraren eragina gero eta handiagoa izan zen uhartean, eta horrekin batera, mintzaldatze-prozesuaren abiadura gero eta handiagoa hasi zen izaten. Garai horretan, ia-ia Ipar Irlanda osoan (*“The Great Irishry”* deitzen zioten garaiko hainbatek) erabiltzen zen gaelera *domain* edo esparru guztietan, bakarrik ekialdeko kostaldeko gune batzuetan erabiltzen zen ingelesa.

#### 4.2. Gaeleraren egoera XVII.- XIX. mendearen amaierara arte

XVII. mendean mintzaldatze-prozesua XX. mendera arte iraungo zuen dinamika berri batean sartu zen. Tudortarren eskutik gertatu ziren aldaketa politikoek epe


luzerako ondorioak izan zituzten ingelesaren eta irlandararen esparru eta funtzioen banaketan.

Tudortarrek erasoaldiak hasi zituzten eta Irlandako jauntxo askori lurren jabetza kendu zieten Ingalaterran jaiotakoei emateko. Aristokraziaren desjabetze eta sakabanaketa hauek aldaketa handiak ekarri zituzten ingeles-jatorriko goi-mailako klasea sortu baitzen. Ez hori bakarrik, kolono berri horiek protestanteak ziren, eta desjabetutakoak katolikoak. Erlijio-banaketa horrek kultura-banaketa handia ekarri zuen ingelesdun-talde txikiaren eta gaeleradun-talde handiaren artean. Honi guztiari gehitu behar zaizkio XVIII. mendean indarrean ezarri ziren hainbat promulgazio, jarduera politiko eta ekonomikoetan katolikoek partehartzea debekatzen zutenak.


Ingelesaren benetako zabalkundea (*language spread*) hiri nagusietan zein inguruko nekazaritza-guneetan gertatu zen, ingelesa jakitea baitzen modu bakarra lana aurkitzeko eta negozioak egiteko. Beraz, Irlandako hizkuntza-ukipena eta bere auzokide gertuen eta boteretsuenaren eragin sozial, ekonomiko eta politikoa oso erlazionatuta egon dira.

Horrela, XVII. mendearen amaieran ingelesa administrazio- eta gobernu-hizkuntza bakarra zen. Oso adierazgarria da gaeleraz ingeles hizkuntzari *Béarla* deitzen ziotela, "hizkuntza teknikoa" esanahia zuena. Garai horretako irlandar gehienentzat, batez ere Ulsterrekoentzat (iparraldean) eta Leinsterrekoentzat (ekialdean), ingelesa jakitea guztiz ezinbestekoa zen bizimodua ateratzekotan. Hindley-k (1990:13) ingelesaren zabalkunde hori nabarmendu zuen: "nahiz eta 1800. urtean Irlanda osoan gaeleradunak egon, Leinster eta Ulster konderrietan umeen artean eta famili gehienetan apenas ez zen erabiltzen". Antza, sozio-ekonomikoki aberatsagoak ziren guneetako gurasoek ingelesa irakasten zieten beren seme-alabei, horrela etorkizun oparoagoa izan zezaten. Ez ekonomikoki ez sozialki aurrera egiteko aukerarik ez zegoen gune txiroetan, berriz, biztanle-kopuruak gora egin zuen garai horretan, eta, beraz, gaeleradun-kopurua.


XVIII. mendean, hirietan ingelesaren zabalkundea bizkor gertatu zen, barneko aldean, ordea, motelagoa baina etengabea izan zen.



15. irudia: Egoera etno-linguistikoa, 1700. urtean



16. irudia: Egoera etnolinguistikoa XVIII. mendearen amaieran



17. irudia: Egoera etno-linguistikoa, XIX. mendean

XIX. mendearen hasieran, Ulster-eko gunek bakan batzuetan soilik hitz egiten zen gaelera eta mendearen amaieran bakarrik Donegal-eko biztanleek eusten zioten hizkuntzari. Beste horrenbeste esan liteke Leinster-i buruz, 1841eko erroldaren arabera, Irlandako biztanleria ia 8 milioikoa baitzen. Halere, garai horretan pairatutako gosete latzak (1845-1849) eragindako heriotzak eta emigrazioak direla medio, biztanle-kopuruak izugarri egin zuen behera, 5.5 milioira jaitسي zelarik. Goseteak, mendebaldeko kostaldeko gunek txiroei eraso zien batik bat, eta ez dago esan beharrik gunek horietan gaeleradun gehienak bizi zirela. Horrela, 1851. urtea

baino lehen biztanleria 5.1 milioira jaitsi zen. Garai horretako emigrazio-fenomenoak batez ere Ipar Ameriketara eta Britainia Handira jo zuen, eta biztanleriaren gutxitze horrek bere horretan jarraitu zuen 1961. urtera arte.

1851ko erroldan agertu zen, lehenengo aldiz, hizkuntzari buruzko informazio ofiziala. Ez da erraza handik eskuratutako datuak interpretatzea, eta horregatik hainbat autoreren arteko aldeak. XVIII. mendearen azken hogeita bost urteetan, biztanleen %45 inguru mintzatzeko ziren gaieraz baina 1851ko erroldan portzentaje hori %30 baino gutxiagokoa zen (Fitzgerald, 1984). Emigrazioak eta etorkizun hobeak izateko desioak bultzatutako gaieradunen jaitsiera izugarri horren gainbehera XIX. mende osoan ere etengabea izan zen.

1891ko erroldaren arabera, gaur egun Irlandako Errepublika den eremuan %19,2 ziren gaieradunak. Horietako gehienak bi probintzietan bilduak: Munster (hegoaldean) eta Connacht (mendebaldean eta ipar-mendebaldean), %2 bakarrik ekialdeko Leinster probintzian bizi ziren.

Erroldako datu hauek aztertuz gero, erabileran izandako izugarriko jaitsiera hau gurasoengandik seme-alabenganako transmisioa eteteagatik ere azal liteke (Ó Riagáin, 1997:5). Adibidez, 1851n, 10 urtetik beherakoetan %12.6 ziren gaieradunak, 1891n, berriz, %3,5.

Ó Murchú-ren ustez (1985:28) gaurko *Gaeltacht*-en tamaina, hein batean, garai horretako datuek eraginda dago. Ez dago ahazterik, bestetik, gaieradunen distribuzioa izugarri aldatu dela XIX. mendetik aurrera. Ó Riagáin-en arabera (1997:146) 1851ko %5ekin eta 1891ko %2rekin alderatuta, gaurko gaieradun guztien %48 inguru Leinster-en bizi dira. Aldaketa hori, batetik, Dublin hiriak izandako hazkundeagatik izan da, baina, agian, eskola gaieradunek azken garaian izandako arrakasta da inportanteena.

XIX. mendearen bigarren erdian, nekazaritza erreformaren eta independentziaren aldeko aldarrikapenak asko izan ziren. 1880an borroka bi hauek bat egin zuten burujabetzaren aldeko mugimendu politiko batean. Arrakasta handirik izan ez bazuen ere, hurrengo hamarkadetan Irlandako mugimendu nazionalistak berebiziko gorakada bizi izan zuen. Aldi berean, ingelesaren aldeko hizkuntza aldaketa oso fase aurreratu baten zegoelarik, gaiera babesteko mugimendu bat sortu zen. Horretan, talderik eraginkorra *The Gaelic League* izenekoa izan zen (1893an sortua); izan ere, talde horren xedea zen gaiera lehengoratzea eta babestea. Nahiz eta mugimendu



horren hastapenak oso xumeak izan, sortu eta handik hamabost urtera, 950 talde edo adar hedatuak ziren Irlanda osoan zehar. Bere eragina oso handia izan zen eta XX. mendearen hasieran hizkuntzaren aldeko mugimenduak eta independentzia politikoaren aldekoak bat egin zuten. Eskola gaeleradun asko zabaldu eta kultura ekitaldi anitz antolatu egin ziren Irlanda osoan. 1900. urtean, Britainiako gobernuak gaelera ikasgai moduan lehen hezkuntzan onartzea izan zen lorpenik handiena (Ó Riagáin, 1997:9). Horretaz gain, hainbat eskola berezitako irakasleentzako prestakuntza hasi zen eta *The Gaelic League*-k Irlandako Unibertsitate Nazionalan (National University of Ireland) sartzeko gaelera ezinbestekoa izatea lortu zuen.

18.irudia: hiztun-kopuruari buruzko datuak, 1799-1981 aldian

		Gaeleradunak	biztanleak	Gaeleradun portzentajea
1799	Stokes	2,4m	5,4	44
1812	Wakefield	3	5,9	51
1812	Dewar	2		
1814	Anderson	2		
1821	Anderson/Graves	3,75	6,8	55
1835	Education Commission Lappenberg	1,5		19
1841	Anderson	4	7,8	51
1842	MacComber	4,1	8,2	50
1851	Errola	3		
		1,5	6,5	23

Hiztunak, 1799-1851 aldian (Hidley (1990), p.15, Table 1)


	Biztanleria	Gaeleradun	portzentajea	gaeleradunak	portzentajea
<b>elebakarrak</b>					
1841	8,2m				50(?)
1851	6,6	0,32	4,9	1,5	23,3
1861	5,8	0,16	2,8	1,1	19,1
1871	5,4	0,1	1,9	0,8	15,1
1881	5,2	0,01	1,2	0,95	18,2
1891	4,7	0,04	0,8	0,68	14,5
1901	4,5	0,02	0,5	0,64	14,4
1911	4,4			0,58	13,3

Hiztunak, 1841-1911 aldian (Hindley (1990): p.19, Table 2; p.23 Table 3)

	biztanleria	gaeleradunak	Portzentajea
1911	4,4	0,58	13,3
1926	2,8	0,54	19,3
1936	2,8	0,67	23,7
1946	2,7	0,59	21,2
1961	2,6	0,72	27,2
1971	2,8	0,79	28,3
1981	3,2	1,02	31,6

Hiztunak 1926-1928 aldian (Hindley (1990), p.23, Table 3)

### 4.3. Gaelera Independentziaren osteko urteetan (1921tik aurrera)



20. irudia: Egoera etno-linguistikoa, XX. mendearen hasieran

1916an goraldi militar bat izan zen zanpatua, baina iraultzak jarraitu zuen eta Independentzia Gerrak (1919-21) 1921eko Hitzarmen Anglo-irlandarra ekarri zuen Irlandako 32 konderrietatik 26ri askatasuna eman ziena. Gainontzeko sei konderriak (Irlandako ipar-ekialdean) Erresuma Batuen menpe geratu ziren. Gerra honek zirauen bitartean behin behineko gobernuak *Department of the National Language* izeneko atala sortu zuen hizkuntza babesteko asmotan.

Nahiz eta azken urteetako gaieradunen jaitsiera itzela izan, biztanleen %18 baino gutxiago, estatu independente berriak 1922an gaelera biziberritzeko prozesuari ekin zion gaelerak Irlandan galdutako lekua berreskura zezan. Estatu Berriaren konstituzioan adierazten zen gaelera, edo handik aurrera irlandera, nazio hizkuntza zela eta ingelesa ere hizkuntza ofiziala izango zela. Hau da, estatu elebiduna aurreikusten zen garai horretan. Gehienek uste zuten, noski, behin estatu berria sortu ostean, hizkuntza berreskuratzeko behar beste neurri hartuko zirela, eta, izan ere, zerbait egin zen, batez ere 20-50eko hamarkaden bitartean. Baina garai hartan ez zegoen halako hizkuntza berreskurapen handia lortu zuen herri bat bera ere Irlandaz kanpo, eta beraz, adibiderik edo erreferentziarik ez zegoenez, ziur aski lanaren zailtasuna ez zen ondo neurtu. Hizkuntza biziberritzeko estrategiaren hiru elementu nagusiak hauexek izan ziren:

- Hizkuntza-komunitatea oraindik zegoen eremuetan babes konstituzionala ematea. Kontuan izanda eremu hauek berez pobreak zirela eta urruneko lurraldeetan zeudela, berebiziko garrantzia izan zuen eremu horietan ekonomia garapenerako programa bereziak abian

jartzeak. Halere, 1926an gaelera nagusia zuen hizkuntza-komunitate hauek nazioaren biztanleriaren %16 baino ez ziren.

- Bestetik, helburua zen komunitate ia ingelesdun batean zeharo sakabanatuta zegoen komunitate txiki bat biziberritzea. Gauzak horrela, estatuak gaelera-hiztun kopurua handitzeko asmoz hezkuntza-sisteman zentratu zen eta horrela gaelera hezkuntza-curriculumean derrigorrezko ikasgai bihurtu zen.
- Azpiegitura egokia eskaintzea, bai hizkuntza biziberritzeko bai babesteko. Adibidez, gaeleraren estatus legala eta konstituzionala finkatzea, estandarizazioa eta eguneratze-programak garatzea, galdutako prestigioa berriro lortzea...

Hizkuntza aldaketa lortzeko tresna sinesgarriak erabili behar zituen gobernuak, eta horretarako gaeleraren balio sinbolikoa, kulturala eta ekonomikoa nabarmentzea erabaki zuen. Gobernuaren politika inportanteenatariko batzuek eragina izan zuten lan zein hezkuntza eremuetan. Gaelera jakitea derrigorrezkoa zen ikasketa-ziurtagiria lortzeko, lanbide batzuetarako eta herri-administrazioan lan egiteko. Hala eta guztiz ere, eskakizun hauetako asko bertan behera geratu ziren 70eko hamarkadatik aurrera. Era berean, estatu berriak arazo ekonomiko serioak ere bazituen, eta ez zen inoiz ezarri hizkuntzaren erabilerarako behar besteko azpiegiturarik. Esaterako, estatuko irriak oso gutxi emititzen zuen irlandera, eta funtzionarioek hizkuntza-gaitasuna egiaztatzeko azterketak gainditu behar bazituzten ere, ez zen erraza izaten estatuko zerbitzuak irlandera eskuratzea.

## **5. GAELERA BIZIBERRITZEKO ARDATZAK: ESKOLA ETA HEDABIDEAK**

1990ean Hindley-k gaelera desagertuko zelako iragarpen negatiboa egin arren, hizkuntzaren historia garaikidean teoria hori bertan behera uzten duten bi une izan dira 70 eta 80ko hamarkadetan. Bi une horietako ardatzak hezkuntza eta komunikabideak izan dira. Horregatik atal honetan euren hastapenak azalduko dira, bai eskolarena eta bai irriarena. Gainera, gaur ezagutzen duguna lortzeko bidean gizarte-mugimenduek izandako garrantzia azpimarratuko da.

## 5.1. Eskolaren hastapenak Irlandako Errepublikan eta Ipar Irlandan

### - Irlandako Errepublika

Aurreneko lehen hezkuntzako eskolak XX. mendearen hasieran sortu ziren Dublinen: mutilentzako *Scoil Éanna*, 1908an, eta neskentzako *Scoil Bhríde*, 1917an.

1922an, orduko behin behineko gobernuak ebatzi zuen lehen hezkuntzako ikastetxe guztiek gaelera ikasgai edo irakasteko hizkuntza bezala erabili behar zutela. Helburu horrekin irakasleak horretan trebatzeko eskolak abian jarri ziren (Ó Buachalla, 1998:348). Eskola gaeleradunetan aparteko garrantzia eman zieten gramatikari eta idazmenari. Ó Laoire-ren ustez (2000:22) hizkuntza politika honen leloa zen “Umeek hizkuntza ikasten badute, gero ikasiko dute hitz egiten”.

Lehen hezkuntza 6-14 urte bitarteko ume guztientzat derrigorrezkoa zen, baina gutxi, ordea, jarraitzen zuten bigarren hezkuntzan. Independentziaren osteko urteetan (Ó Buachalla, 1988:62) lehen hezkuntza amaitu osteko ikasketak hiritik kanpoko umeen %8rentzat bakarrik ziren eskuragarri. Bigarren hezkuntzako eskoletan gaelera eta ingelesa izan ziren derrigorrezko ikasgaiak 1927tik. Gaelera derrigorrezkoa zen bi azterketa nagusietan: *Intermediate Certificate* (OHoko eskola amaitutakoan) eta *Leaving Certificate* (bigarren hezkuntza amaitutakoan). Beraz, ikasketak gaeleraz egiteari aparteko balio erantsia ematen zioten garai hartan.

Horri esker, ikasgaiak gaeleraz eskaintzen zituzten eskolak (“A” schools) gero eta gehiago ziren, 1925-1926 ikasturtean 5 eta 1930-1931n 20, eta hainbat ikasgai gaelikoz irakasten zituztenak (“B” schools) garai horretan 10etik 68ra pasatu ziren (Department of Education. 1932; Ó Buachalla, 1988:349).

Hizkuntza-politikak gogor ekin zion bide horri 30eko hamarkadan eta 40ko hamarkadaren hasieran, eta horri esker alde ingelesdunetan eskola gaeleradun kopuruak %12 gora egin zuen lehen hezkuntzan eta %28 bigarren hezkuntzan.

Halere, 1950eko hamarkadan hezkuntza-sisteman hizkuntza politika malgutzen hasi zen. Arrazoiak bi izan ziren: batetik, irakasle eta politikarien arteko ezinegona nabarmena zen sistemaren egokitasuna bitarteko mailetan oso zalantzetan jarri baitzen. Bestetik, askok ez zituzten begi onez ikusten bi azterketa ofizialak (*Intermediate eta Leaving Certificate*), gaeliko-azterketak gainditu ezean ezin baitzuten ikasketak-agiria eskuratu. Ó Riagáin-ek (1993:47) aipatzen du 1964an burututako

galdeketa batean %71 ez zeudela ados gaelikoaren derrigortasunarekin azterketa ofizialetan eta %65 gaeleraren bidezko irakaskuntzaren kontra zeudela.

Garai hartan administrazioan ere ezinegon handia zegoen ordura arteko hezkuntza-sistemak emandako etekin eskasak ikusita, aurreikusitakoa ez baitzen bete. *Comhairle na Gaeilge* (The Irish Language Council) elkarteak 70eko hamarkadan txosten bat kaleratu zuen eta bertan azpimarratu zuen eskola batzuk oso arrakastatsuak izan zirela, baina beste askotan, ordea, 12 urtez gaelera ikasi ondoren, umeak ez zirela gai berbaldi bat gaeleraz izateko (*Comhairle na Gaeilge*, 1974:3). Ó Laoire-k (2000:23), 1930-60 bitarteko hizkuntza politikari dagokionez, azpimarratu zuen izugarritzko desoreka zegoela eskoletan gaelera ikasteko egindako ahaleginen eta kalean erabiltzeko aukeren artean. Hots, ez zegoen inolako loturarik esparru funtzionalen artean (eskola, etxea eta kalea) (Ó Laoire, 1995:230).

60ko hamarkadan hezkuntza politikan izandako aldaketa sakona Irlandan bizi izandako garapen ekonomikoa eta sozialaren ondorio zuzena da. Hezkuntza politika berri baten hasiera izan zen, non eduki kurrikularra eta hezkuntzarako berdintasun eredia bilatzen ziren. 60-70eko hamarkaden bitartean bigarren hezkuntzako ikasleen gorakadak eta gaelerazko ereduak sorrarazi zuten gaelera modu pragmatikoago batean irakasteko beharra. 60ko hamarkadan bitarteko hezkuntzako eskola gaeleradun kopurua izugarri jaitsi zen (1960an 80 eta 1970an horien laurdena). Hamarkada horretan beherakada lehen hezkuntzako eskoletan batez ere nabaritu zen, 183tik 28ra jaitsi baitzen. Horrela, eredu elebidun edo gaelikodunaren desagerpenaren hasiera izan zen horrela gaelera irakasgai soila bihurtuz.

Garai horretan, 60ko hamarkadaren amaieran eta 70ekoaren hasieran, hizkuntza-politikan izandako aldaketek hezkuntzan eragindako ondorioak ikusita, gizarte-mugimendu bat sortu zen bi elkarteren bidez bideratu zena: *Na Naíonraí Gaelacha*, haur-eskoletarako eta *Gaelscoileanna*, lehen eta bigarren heziketarako. Biek egindako lanari esker existitzen da gaurko hezkuntza-sistema.

## **- Ipar Irlanda**

1921-1972 bitartean gaeleraren kontrakoa zen alderdi politiko batek, *The Ulster Unionist Party*-k (UUP), Ipar Irlandako Parlamentuan zeukan boterea eta, gainera, 1972-1998 bitartean Ipar Irlanda Westminster-etik gobernatuta egon zen. Egoera

politikoa horrela, 1921 baino lehen ikasgaia zen gaelera, 30eko hamarkadatik aurrera curriculumean murrizten saiatu zen gobernuak.

70eko hamarkadan euren kabuz gaelera ikasi zuten zortzi bikote gaztek Belfast-eko mendebaldeko mugaren inguruan *gaeltacht* txiki bat sortu zuten: kooperatiba bat sortu zuten, lurra erosi, etxeak bertan eraiki eta gaeleraz mintzatzen zen komunitate txiki bat osatu zuten. Talde honek oinarrizko eskola gaeleradun bat irekitzeko gobernuari dirulaguntza eskatu zionean, erantzun gogorra jaso zuen. Dirurik ez emateaz gain, gobernuak esan zuen horrelako eskolarik zabalduz gero, gurasoak atxilotu egingo lituzketela beren umeak eskolara joango ez balira bezala hartuko bailituzkete.

Gobernuak mehatxatu arren, oinarrizko eskola 1971ko irailean zabaldu zuten, 5 urteko bederatzi umerekin (zazpi ume *gaeltacht* txiki horretakoak ziren eta beste biak ingurukoak). 1971n gobernu britainiarrek Ipar Irlandako gatazkan guztiz murgilduta, ez zituen bere mehatxuak bete. 1977an eskola zertxobait handiagoa zen, 30 ikasle eta bi irakasle baitzituen. 1978an eskola bereko gurasoek haur-eskola gaeleradun bat zabaldu zuten eta bertan bi urte igaro ostean (3 urtetik 5 urtera) *Bunscoil* edo oinarrizko eskola gaeleradunera joateko prest zeuden. Aldaketa izugarria izan zen hori gaelera ez zekiten gurasoek euren umeak haur-eskola horretara bidaltzen baitzituzten. Zortzi urteren buruan haur-eskolan 120 ume zeuden eta lehen hezkuntzan edo oinarrizkoan 150 ikasle eta 7 irakasle.

Gobernu britainiarrek hamahiru urtean ez zion dirurik eman eskolari, baina denbora-tarte horretan bere gaelerarekiko jarrera zertxobait aldatu zen eta 1984an diru apur bat ematen hasi zen. Dena den, aldaketarik esanguratsuena 1998ko apirilaren 10eko *The Belfast Agreement* edo *Good Friday Agreement*<sup>3</sup> izeneko hitzarmena sinatu ostekoa izan zen. Itun horren arabera, Ipar Irlandan gaelera hizkuntza ofiziala izan ez arren, gobernuak konpromisoa hartu zuen hizkuntzaren sustapenean laguntzeko.

Hezkuntza-sistemari dagokionez, konpromisoa hartu zuen hezkuntza gaeleraduna errazteko, edo eskaerarik izanez gero, hezkuntza-maila guztietan gaeleraren irakaskuntza errazteko, helduentzako irakaskuntza eta unibertsitatea barnean. Gainera, hezkuntza-sistemaren bitartez kultura sustatzeko eta irakasleei prestakuntza egokia emateko konpromisoa hartu zuen.

---

<sup>3</sup> Ikusi <http://www.nio.gov.uk/issues/agreemain.htm>.

## 5.2. Hedabideak: Irratiaren hastapenak

60ko hamarkadan herriak gobernuari eskatu zion *Gaeltacht*-eko nekazaritza guneetarako irrati bat sor zezala. Gauza bera gertatu zen 90eko hamarkadan eta 2000ko lehenengo urteetan nazio mailako telebista gaeleradun bat sortzeko eskaria egin ziotenean. Eskaera hauek ez dira faktore bakarrak hizkuntzarekiko interesa berpizteko, baina komunikabideetan gaeleraren agerpenak hizkuntzaren estatusa hobetu du gaeleradun eta ez-gaeleradunen artean eta, gainera, gaeleradunen artean konfiantza eta nolabaiteko esperantza ere ekarri ditu.

1960aren amaieran *Gaeltacht*-en gazte gaeleradun talde bat (*Gluaiseacht Cearta Sibhialta na Gaeltachta*) sortu zen aldarrikatzeko ingeles-hiztunekin alderatuta desabantailan zeudela. Talde honek ingelesdunek zeuzkaten beste zerbitzu eskatzen zizkioten gobernuari baina gaeleraz eta ez ingelesez. Protesta eta indarra egin ostean, 1970ean Galway-rako irrati libre bat sortu zuten bertako berriak eta bertakoen intereseko gauzak gaeleraz entzuteko aukera eman nahian. Ekimen honi esker Irlandako Irrati Publiko Zerbitzuak bigarren irrati katea sortu zuen (*Raidió na Gaeltacht*, 1972an) *Gaeltacht*-eko hiru zonaldeentzat. Hasiera batean emititzen zuen AMren bidez eta bakarrik egunean ordu gutxi. FMra transferitu zen eta duela urte gutxi batzuetatik hona 24 orduz egunean, gainera, interneten ere eskuragarri dago ([www.rte.ie/rna](http://www.rte.ie/rna)). Beraz, irrati honen sorrera herri-ekimenari esker da eta ez gobernuaren erabaki bati esker.

## 6. GAELERA GIZARTEAREN HAINBAT ARLOTAN

### 6.1. Irakaskuntza

#### - Irlandako Errepublika

Gaur egun, gobernuaren Hezkuntza eta Heziketa sailak du ardura hezkuntzaren maila guztiak ebaluatzeko, kalitatea ziurtatzeko aurreikuspenak eta plangintzak egiteko. Lehen eta bigarren hezkuntzako ikasle guztientzako derrigorrezko ikasgaia da gaiera. Bere irakaskuntza islatuta dago curriculumean (bai trebetasun hartzaileei eta emaleei dagozkien arlo guztiak baita hizkuntzaren balioa ulertaraztekoak ere). Hori

egingarri bihurtzeko, irakasleentzat behar besteko laguntza eta prestakuntza emateko zein baliabide didaktiko egokiak sortzeko konpromisoa hartu du gobernuak. Horretaz gain, gobernuak *Gaelscoileanna*-k<sup>4</sup> sustatzeko eta laguntzeko konpromisoa hartu du, lehen eta, batik bat, bigarren hezkuntzan, horrela gaur egungo eskaera asetzeko. Amaitzeko, haur-eskoletarako laguntzak ematen ditu eta epe laburrean hezkuntzaren hirugarren maila gaeleraz ere eskaintzeko konpromisoa hartu du.

Hezkuntza derrigorrezkoa da 6-15 urte bitartean. Eredu gaeleradunari dagokionez, bi sistema nagusi daude:

1. *Gaeltacht*-en lehen eta bigarren hezkuntza-sisteman Estatuak beti izan du eskuduntza. Hemen irakasteko hizkuntza gaclera da, eta Errepublikako gainontzeko zonaldeetan, oro har ingelesa. Halere, gero eta eskolatik kanpoko eragile gehiagok oztopatzen dute eredu hori. Izan ere, errealitatean eskolak gero eta elebidunagoak bilakatzen ari dira, gacleraren kalterako, eta hori, gizartea, eta ez linguistikoki soilik, bizi ari den aldaketa guztien isla baino ez da. Hona hemen *Gaeltacht*-eko sistema gacleraduneari aritzen diren ikasle-kopuruari buruzko datu batzuk:

<b>Irish Medium Education <i>Gaeltacht</i></b>		
<b>1999 - 2000</b>		
	<b>Schools</b>	<b>Pupils</b>
<b>Primary</b>	110	8,035
<b>Post-Primary</b>	20	3,443
<b>Total</b>	130	11,483

20. irudia: *Gaeltacht*-eko eskola gacleradunetako ikasleak, 1999-2000 ikasturtean

2. 1960an hizkuntza politikan izandako aldaketek eskola-munduan gizarte-mugimendu bat sorrarazi zuten, horrela bi elkarre agertu ziren: *Na Naionraí*, aurre-eskolarako eta *Gaelscoileanna*, lehen eta bigarren hezkuntzarako.

<sup>4</sup> Irakasteko hizkuntza gaclera duten eskolak. 2005eko irailean, Irlanda osoan, (bainaez *Gaeltacht*-en, bertako eskolak ez baitira *Gaelscoileanna*-tzat hartzen), lehen hezkuntzan 158 ziren eta bigarren hezkuntzan 36, guztira 31 ikasle gutxi gorabehera. *Liatroma* konderrian 2005ean irekitakoa kontuan hartuta, gaur egun, Irlandako 32 konderritan, gutxienez gaelscoil bana dago.



Haur-eskolak edo *Naionraí* Irlandako Errepublikan osoan zehar aritzen dira baina hezkuntza-sistematik kanpo. Halere, euren lana gizarte zein gobernuaren onospena jaso du. Funtsezko zeregina dute lehen hezkuntzako ikastetxe gaelikodunen jarraipena ziurtatzeko, umeak hizkuntzan murgiltzen hasten baitira oso txikiak direnetik, eta horrek eredu horretan jarraituko dutela ziurtatzen du.

Naionraí 1999-2000		
<i>Gaeltacht</i> 98	boys 50,4%	families
rest of Republic 180	girls 49,6%	
total 278	total 3,257	total 3,078

21. irudia: Irlandako Naionraí-ei buruzko datuak, 1999-2000 ikasturtea

*Gaescoileanna*-ren hastapenak oso gogorak izan baziren ere (oso talde txikiak, behin behineko lokaletan, gurasoek ordaindutako irakasleak, gobernuaren onospenik gabe...), gaur egun sistema publikoaren barruan daude eta hain da ona bere ospea, non hezkuntza-sistemaren barruan eredugarritzat hartzen baitira. Bigarren hezkuntzari dagokionez, *Gaeltacht*-ekoez gain (tradizionalki gaeleraz irakatsi dutenak), gero eta gehiago dira lehen hezkuntzatik datozen ikasleen beharrak asetzeko sortzen ari direnak.

Aurreko bi eredu nagusiekin batera, badaude beste bi mota. Batetik, *Modhscoil* edo eskola-modelo batzuk, eta bestetik, lehen eta bigarren hezkuntzan (*Gaeltacht*-etik kanpo) eredu desberdinak eskaintzen dituzten eskolak: arlo kurrikular bat edo talde bat gaeleraduna, ikasgai batzuk gaeleraz...

Irish medium primary education-outside <i>Gaeltacht</i>		Irish medium second level education-outside <i>Gaeltacht</i>		
			Gaescoileanna (1999-2000)	some subjects through Irish
schools	114	schools	30	7
pupils	19,554	pupils	4998	363

Source: Organisation *Gaescoileanna* (column 1) and official statistics (2)

22. irudia: *Gaeltacht*-etik kanpoko lehen eta bigarren hezkuntzari buruzko datuak, 1999-2000 ikasturtea

Helduentzako gaeleraren irakaskuntzari dagokionez, erakunde boluntario batzuek eskaintzen dituzte gaclera ikasteko kurtsoak (*Conradh na Gaeilge, Gael-Linn*) eta ikastetxe batzuek ere gurasoentzako ikastaroak eskaintzen dituzte. Gainera, badaude hainbat ikastaro multi-media eta *on-line* ikasteko. Beraz, ez dago zehatz-mehatz jakiterik zenbat ikasle ari diren.

## - Ipar Irlanda

Gaeleraren bidezko irakaskuntzaren ardura Hezkuntza sailari dagokio. 2000. urtean sail honek bi erakunde boluntario osatu zituen: *Comhairle na Gaelscolaiochta* eta *Iontaobhas na Gaelscolaiochta* izeneko fondo fiduziariora.

Lehenengoari dagokionez, Hezkuntza sailak sortu zuen 2000. urtean gacleraren bidezko hezkuntza sustatzeko (eskola berriak irekitzeko, aholkularitza-zerbitzua emateko, informatzeko...). Bigarrenari dagokionez, 2001. urtean sortu zen aurre eskolei, lehenengo eta bigarren mailako eskolei laguntzeko asmotan, gobernuaren 7,5 milioi liberako fondoaz zuela.

Bi erakunde hauek sortu arte, beste elkarte batek, *Gaeloiliúint-ek*, zuen horren guztiaren erantzukizuna. Gaur egun 3. mailako irakaskuntzari ekiten dio elkarte honek eta aurreikusten da hemendik gutxira 3. zikloan ere eskolak gacleraz eman ahal izatea. Bi erakunde horietaz gain, badaude beste batzuk gobernuarenak ez direnak, eta antzeko zereginak betetzen dituztenak (aholkularitza, informazioa, sarearen lotura mantentzearena, ikasle, irakasle eta gurasoentzako laguntza...). Horien artean, *Altram* (1996), *Foras na Gaeilge* (1999), *An tÁisaonad Lán-Ghaeilge* (irakasleentzako material didaktikoaz arduratzen dena).

Ikasle-kopuruari dagokionez, 2002-2003 ikasturtean ziklo guztietan matrikulatutako ikasleak hauexek dira:

Hezkuntza mota	Eskola-kopurua		Ikasle-kopurua	
	Gaclera	Ingelesa	Gaclera	Ingelesa
Haur eskolak (02-03)	34	899	847	21.079
Lehen hezkuntza eta taldeak (02-03)	25	917	1.954	167.799
Bigarren hezkuntza eta taldeak (02-03)	3	235	427	155.747
Goi mailako ikasketak (01-02)		17		92.416
Irakasle-eskolak (01-02)		2		2.291
Unibertsitateak (01-02)		2		42.138

23. irudia: Ipar Irlandako ikastetxe eta ikasle-kopurua, 2002-2003 ikasturtean

Matrikulazio-bilakaerari dagokionez, Belfast-en 1978an lehenengo aurre-eskola sortu zenean 7 ume zeuden matrikulatuta, 2002-03ko ikasturtean 847 ikasle daude Ipar Irlanda osoan. Belfast-en lehen hezkuntzako eskolan 9 ume zeuden matrikulatuta eta 2002-03 ikasturtean 1.954 Ipar Irlanda osoan. Bigarren hezkuntzako lehenengo eskola Mendebaldeko Belfast-en sortu zen eta gobernuaren dirulaguntza 1996an hasi zen jasotzen, gaur egun 427 ikasle daude matrikulatuta. 16 urtetik gorako mailetan, normalean ingelesez ikasten da, nahiz eta arestian aipatutako elkarteek (*Altram*, eta *Forbairt Feirste*) hainbat ikastaro eskaini gaeleraz (informatika, lan-munduan sartzekoak...). Goi-mailako ikasketak edo unibertsitate-ikasketak normalean ingelesez jasotzen dira, nahiz eta batzuetan aukera egon ikasgai batzuk gaeleraz jasotzeko.

Helduentzako gaelera ikastaroei dagokienez, Ipar Irlandan helduek ere aukera daukate gaelera ikasteko. Nahiz eta iraganean helduentzako gaelera ikastaroak boluntarioek emanak izan, 90eko hamarkadaren erdialdetik aurrera sektorearen hazkundera hasi zen. Ez dago datu estatistikorik horren inguruan, baina 1996-97 ikasturtean Belfast-en soilik astero 60 eskola ematen ziren hiriko 37 leku desberdinetan. Gaur egun dauden elkarterik garrantzitsuenak dira: *The Belfast Institute of Further and Higher Education*, *Queen's University* eta *University of Ulster*. Horietaz gain elkarte boluntario batzuk ere ari dira: *Conradh na Gaeilge* (The Gaelic League), *Cumann Chluain Ard* (Belfast) eta *Glór na nGael*.

## 6.2. Hedabideak

### 6.2.1. Irratia

Gaur egun irrati mota asko daude (nazionalak, lokalak, libreak) askok programazio osoa gaeleraz eskaintzen dute, eta beste hainbatek programazioaren portzentaia handi bat. Irratiak berebiziko aukera eskaintzen du entzumena lantzeko, eta, batez ere, gaeleraren dialektoetara ohitzeko. Hona hemen hizkuntza-gaitasun desberdineko entzuleentzako aukera guztien hiru adibide:

- **Raidió na Gaeltacht** ([www.rte.ie/rnaq](http://www.rte.ie/rnaq))

Hasieran *Gaeltacht*-eko hitzun-komunitateentzat sortu bazen ere, denboraren poderioz irrati nazionala bihurtu zen, eta gai nazionalak zein nazio-arteak jorratzen ditu. 2001eko urriaren 1etik egunean 24 orduz emititzen dute, horietatik 6 errepikatua

direlarik. Berebiziko garrantzia dute mendebaldeko gaiak eta soinuak. Gainera, bitxia bada ere, sortu zenetik, ez dute kantarik jartzen ingelesez.

Bere hizkuntza-politika oso argia izan da hasieratik, eta goi-mailako gaelera erabiltzen dute emititzeko, normalean jatorrizko natiboen esku. Gaeleraren hiru dialektoak erabiltzen dira, hiru komunitateak gerturatu nahian. Gainera, lan-hizkuntza ere bada. Aukeraketa egin behar izan du audientzia lortzeko eta, beraz, programazioaren edukia eta hizkuntza maila aukeratzeko. Gaur egun ere, jatorrizko hiztunei zuzenduta dago, beraz, gaitasun handikoak. Hizkuntzaren estandar handia mantentzeko lan handia egiten ari da, batez ere, kontuan hartzen badugu horren gabetia mintzatutako hizkuntzan. Sekulako garrantzia du terminologia berria zabaltzen duelako eta gai teknikoei, politikoei eta normalei buruz mintzatzen delako.

**- Raidió na Life ([www.rnl106.com](http://www.rnl106.com))**

1993an sortu zen eta, batez ere, Dublin aldeko gaeleradun-komunitateetako gazteei zuzenduta dago bigarren adibide hau. Langileak 18-40 urte bitarteko boluntarioak dira eta hori programazioan islatzen da. Hizkuntza gaelera da, baina musika edozein hizkuntzatan jartzen dute. Egunean 9 orduz emititzen dute asteleheneetik ostiralera eta asteburuetan 13.5 orduko emisioa eskaintzen dute.

Hizkuntzari dagokionez, maila guztientzako hitzuntzako programazioa eskaintzen dute. Euren helburua ez da gaelera irakastea, baina oso ondo funtzionatzen du oso maila ona ez duten entzuleen artean.

**- Wired Luimnigh (FM 96.8 & 106.8 ostiraletan 5etatik 7.30era)**

Irrati lokala da eta beste bietatik oso bestelakoa. 2003an sortu zen Limerick-en oso gaelera-maila gutxiko entzuleei zuzenduta, euren maila hobetzen lagundu nahirik. Beraz, eduki didaktikoa da nagusi. Ahalegin handiak egiten ditu hizkuntza-komunitate eta gaitasun gutxikoen arteko loturak ezartzeko. Beraz, sekulako garrantzia dauka, ez emisioagatik beragatik, baizik eta hizkuntza sustatzeko egiten dituen ahaleginengatik.

Hona hemen hiruren arteko konparazio-taula. (2004)

<b>Ezaugarriak</b>	<b>Raidió na Gaeltachta</b>	<b>Raidió na Life</b>	<b>Wired Luimnigh</b>
Erabilitako hizkuntza	gaelera	Gaelera	Gaelera
Entzuleen gaitasun maila	Jatorrizko eta gaitasun handiko hiztunak	Maila handiko eta ertainekoak	Ertaineko mailakoak eta ikasleak
Xede-taldea	<i>Gaeltacht</i> (nekazaritza guneak)	Hiriko gaelikodunak	Hiriko gaelikodunak eta ikasleak
Hedapena	Nazio-mailan	Dublin Handia	Limerick hiria
Izaera	Estatala (Jatorrizko hiztunen presioei esker)	Herrikoia, Dublin handiko mugimenduari esker	Unibertsitate-irratia
Nork norentzat sortua	Estatuak herriarentzat	Herriak herriarentzat	Gaelera zaleek ikasleentzat
Programazio berria (orduak astean)	126	61	3
Programazio orduak astean	168	72	6
Musika-eskaintza	%30	%60	%40
Helburua	Zonalde gaelikodun adin guztietako hiztunei irratia zerbitzu osoa eskaintzea	Hiritarrei irratia gaelikoduna eskaintzea	Hiriko hiztun-komunitatea sortzea eta horretarako gurasoei eta haurrei irratia zerbitzua eskaintzea.
Lanaldi osoan jarduten duten langileak	80	2	0

Azaldutako adibideez aparte, beste emisora asko ere badaude, esaterako:

- **BBC** ([www.bbc.co.uk/northernireland/irish/](http://www.bbc.co.uk/northernireland/irish/)).
- **Raidió Fáilte**. Belfast aldean emititzen duen toki irratia.
- **Raidió an Iúir**. Newry eta Mourne barrutietan (programazioaren erdia irlandez).
- **Flirt FM 105.6**. Lan egunetan, musika eta eztabaidak eskaintzen ditu.
- **Near FM 101.6**.
- **Splanc Céille Newstalk 106 FM**. Dublin aldeko hizkuntza-komunitateari zuzenduta.

### 6.2.2. Telebista

- **TG4 (TG Ceathair)** ([www.TG4.ie](http://www.TG4.ie))

"Radio Telefís Éireann" enpresa publikoak 1996ko urriaren 31n abiatutako katea da, beraz nahiko kate berria dela esan dezakegu. 2007an bere bide propioa hartu du, "European Broadcasting Union" taldean sartuta. Baile na hAbhannen (Galway) dauka egoitza nagusia. Irlanda osorako emititzen du, bai Irlandako Errepublikarako bai Ipar Irlandarako, egunero 800.000 ikusle dituelarik. TG4k, nazio-telebista izan nahian, bi hizkuntza-komunitate desberdinei zuzendu behar die bere programazioa kanal bakar baten bidez. Adibidez, gure kasuan, ETBk antzeko arazo baten aurrean, kanal bi sortzera jo zuen.

Bere hizkuntza-politikari dagokionez, TG4 aurkezten da publikoaren aurrean “as a public broadcaster charged with providing a national television service in the Irish language”<sup>5</sup>. Hortaz, gaelerazko kanaltzat hartzen du bere burua, nahiz eta bere saioak gaeleraz zein ingeleraz eskaini.

TG4k haurrentzako eta kirol saioetan oinarritzen du bere gaelerazko programazioa, ETB1ek euskaraz egiten duen moduan. Halere, ingelerazko programazioa ezinbestekoa omen da katearen biziraupenerako. Honela programa gehienek ingelerazko azpтитuluak dakartzate. Katearen arduradunek oso argi ei zuten hasieratik zein izan behar zen hizkuntza-politika erakunde nazional baten helburuak betetzeko:

“Somos un canal de televisión, y como tal nos interesa llegar a todos los televidentes del país por lo que todos los programas grabados, aun siendo emitidos en gaélico irlandés, serán subtítulos en inglés mediante el teletexto. Así pues, no nos limitamos al público que habla o entiende el irlandés.” (Padhraic O Ciardha, Watson, 1997: 223 aipatua)

Watson-ek berak urte batzuk beranduago argudiatzen duenez:

“TG4 are subject to larger market forces that demand larger audiences than the Irish-speaking public can provide. To overcome this TG4 devote almost half of their airtime to programmes in English” (Watson, 2002: 754).

Izan ere, emandegiak ez du aurreikusten etorkizun hurbilean kanal elebakarra izatea. Bere arduradunen iritziz, irlandera hutsez eginiko programazioak audientzia-mailen beharakada ekarriko luke eta katea galdua egongo litzateke eratzen ari den panorama digital berrian.

Dena den, bi hizkuntzen arteko “oreka” honek abantailak eta eragozpenak ere sortzen ditu. Honela ikusten du Ellen Hazlekorn-ek:

“Este equilibrio es fundamental para que la emisora pueda obtener ingresos publicitarios que le proporcionen cierto grado de viabilidad financiera. Por este motivo, sin embargo, TnaG<sup>6</sup> ha sido objeto de continuas críticas según las cuales la cadena puede estar sufriendo una «crisis de identidad». Los críticos se preguntan si TnaG será capaz de llegar a todo el público, la mayor parte del cual no habla gaélico irlandés en su vida cotidiana, y al mismo tiempo satisfacer las necesidades de la reducida minoría de habla irlandesa...” (Ellen Hazlekorn, MORAGAS SPÁ, Miguel de; GARITAONANDIA, Carmelo; LÓPEZ, Bernat (eds.), 1999: 314).

TG4k ez dauka hizkuntz politika “ofizialik”, nahiz eta kateak estilo-liburu bat kaleratu zuen emititzen hasi zenean. Halere, telebista honek politika zorrotz bat

<sup>5</sup> *Ceannasai's Review of 2004*. TG4, 2005:1

<sup>6</sup> *Teilifís na Gaeilge* (TnaG) Irlandako gaelikoz TG4 kateari ematen zaion izen osoa da.

aplikatzen du haurrentzako saioetan *caighdeán Irish* erabiltzerakoan, eskolan ikasten den gaelerazko barietatearen erabilpenaren luzapena babesteko asmoz. Gainontzeko programetan, orokorrean, tokiko dialektoen eta hizkuntza estandarren arteko nahasketa eman ohi da.

Hizkuntza politikaren inguruko eztabaida-gunea beti leku berean kokatzen da, Fennell-ek apuntatzen duenez:

“TG4 sees itself first and foremost as a television station, not a language revival movement”<sup>7</sup>

Hala eta guztiz ere, telebistak irlandar hizkuntzaren biziraupenean paper garrantzitsua jokatu behar duelako ustea zabaldua dago. Aldez aurretik grabaturiko saio guztiek ingelerazko azpтитuluak dakartzate. Hauen erabilpenak, irudiarekin batera, gaclera ikasleen ulermena errazten du. Dena den, TG4k ez du emititzen gaclera ikasleentzako berriazko programarik, kateak bere zerbitzua komunitate gacleradunari eskaini behar diola ulertzen baitu. Baina ez dugu ahaztu behar, O’ Connell-ek (2003) baieztatzen duenez, azpтитuluaren aukerak rol garrantzitsu bat jokatzen duela hizkuntza-plangintzan. *Caighdeán Irish*-en erabilpenak barietate estandarren irakurmena eta ulermena sustatzen ditu baita irlandera ama-hizkuntza dutenen artean ere. Era berean, Moriarty-k 2005ean Irlandako unibertsitateko ikasleen artean egindako ikerketan erakusten du emandegiak hizkuntzaren aldeko jarrera bat eragiten duela ikus-entzuleen erdia baino gehiagorengan.<sup>8</sup>

TG4 kateaz gain beste bi telebista-katek hainbat saio emititzen dituzte gacleraz: **RTÉk** ([www.rte.ie](http://www.rte.ie)) eta **BBCk** ([www.bbc.co.uk/northernireland/irish/](http://www.bbc.co.uk/northernireland/irish/))

### 6.2.3. Prentsa idatzia

Mota askotako prentsa idatzia dago (gai desberdinak jorratzen dituztenak, nazionalak, lokalak, alternatiboak...) gaur egun, horietako asko interneten eskuragarri. Horietako batzuk hauexek dira:

- **Lá** egunkaria ([www.nuacht.com](http://www.nuacht.com)). Osotasunean gacleraz argitaratzen den lehenengo egunkaria. Egunero 5.000 ale saltzen dira Irlanda osoan zehar.

---

<sup>7</sup> Kelly-Holmes, H. (2000) lanean jaso.

<sup>8</sup> Moriarty M. (2005): *The Impact of Minority Language Broadcasting in Attitudes to and the use of Minority Languages: The case of TG4*, Limerick-eko Unibertsitatean emandako hitzaldian, 2005ko maiatzak.

- **Foinse** astekaria ([www.foinse.ie](http://www.foinse.ie)) larunbatero argitaratzen da eta batez beste 7.000 ale saltzen dira.
- **Saoil** hilabetekaria.
- **Comhar** hilabetekaria, eguneroko gaiak, artea eta literaturari buruzkoa.
- **Feasta** hilabetekaria, literaturari buruzkoa.
- **Cuisle** hilabetekaria. Gaurko gaiak jorratzen ditu.

Ondokoetan ere hainbat material dago argitaratuta gaeleraz: **The Irish Time** ([www.ireland.com](http://www.ireland.com)), **Daily Ireland** ([www.dailyireland.com](http://www.dailyireland.com)), **The Irish News** ([www.irishnews.com](http://www.irishnews.com))

#### 6.2.4. Internet

Gaur egun material ugari agertzen da sarean. *Webgune* mota asko daude eta bertan askotariko informazioa dago eskuragarri. Honek aukera ematen du hiztunen arteko loturak estutzeko, bizi diren tokian bizi direla. Horien artean arrakastatsuenak edo ezagunenak ondokoak dira:

- Gaelport ([www.gaelport.com](http://www.gaelport.com))
- Beo! ([www.beo.ie](http://www.beo.ie))
- Gaeilge ar an Ghréasán ([www.smo.uhi.ac.uk/gaeilge/gaeilge.html](http://www.smo.uhi.ac.uk/gaeilge/gaeilge.html))
- Litriocht.com ([www.litriocht.com](http://www.litriocht.com))
- Oideas Gael ([www.oideas-gael.com](http://www.oideas-gael.com))

Horietan hainbat baliabide eskaintzen zaizkie gaelera ikasleei, adibidez [www.acmhainn.ie](http://www.acmhainn.ie) orrian. Horietaz aparte web askotan posible da hiztegiak eta bestelako material didaktiko lagungarria topatzea, gero eta gehiago.

#### 6.3. Justizia

Teorian gaelerak estatus legala dauka justizia sistema osoan, baina praktikan auzitegi gehienetan ingelesa erabiltzen da. Gora jotzen duen edonork eskubide osoa dauka bi hizkuntzetariko edozein erabiltzeko, ingelesa zein gaelera. Lekukoek edo




akusatuek gaelera erabili nahi izanez gero, zerbitzu hori eman behar zaie, nahiz eta askotan eskaera horrek prozesuaren atzerapena ekarri, batez ere epaileak edo abokatuak ez badakite gaelera. Kasu horietan ez dago itzultzaile ofizialik. Gaeleraz idatzitako agiriak, ordea, onartzen dira inolako arazo barik.

### 6.3. Administrazio publikoa eta zerbitzuak

Lehen esan bezala, herri administrazioak iraganean izugarritzko garrantzia izan zuen gaelera biziberritzeko. 70eko hamarkadaren hasierara arte, gaelera jakitea ezinbestekoa zen administrazio-lanpostuetan aritzeko. Izan ere, gaelera ondo zekiten guztien %60k herri-administrazio lanpostuetan egiten zuten lan. Azken hamarkadetan, ordea, gaelera-gaitasuna administrazioaren lanpostu bakar batzuetan eskatu da, normalean *Gaeltacht*-en hizkuntza-politikarekin lotuta dauden ataletan. Atal horietaz aparte, gaelera oso gutxitan erabiltzen da, eta nahiz eta gaelera erabiltzeko eskubidea guztiz babestuta egon, praktikan hiritar batek erabili nahi badu bai ahoz bai idatziz, horrek ekarri ahal du atzerapen luzea.

Gaeleraren erabilera errepide-seinaletan guztiz zabaldua dago, nahiz eta formatu elebiduna erabili horretarako. Agiri ofizialetan eta inprimaketan askoz mugatuagoa eta aldakorragoa da.



## 7. GAELERAREN BERRITZE ETA ESTANDARIZAZIOA

### 7.1. Gaeleraren bilakaera historian zehar

Hizkuntza zeltiko honen lehenengo idatzizko arrastoak IV.-VII. mendeetakoak dira, harrizko monumentuetan *ogham* izeneko idazkeran idatzi zirenak. Idazkera honetan alfabeto unitateak harrizko monumentuetan egindako kosken bitartez adierazten ziren. Adituen ustez, *ogham* izkribu hauek ahozko hedapen handirik izan ez zuen antigoaleko hizkuntza batenak ziren, *Primitive Irish* izenekoa.

V. mendean, uhartean kristautasuna sartu zenean, loraldi kultural eta erlijiosoa bizi izan zen, monasterio asko eraiki ziren eta

haien eragina Europako mendebalde guztira zabaldu zen. Izan ere, Irlandako kristautasunaren ezaugarriarik nagusiena monasterioen zeregina izan zen. Handienak gune kultural inportanteak izan ziren eta horietako askok, handienek, hiri moduan funtzionatu zuten. Garai horretakoak dira latindar alfabetoa erabiliz idatzitako lehenengo agiriak. *Old Irish* izeneko gaeleraren garaia zen eta garai horretako idazkietako hainbat hitz latinetik eratortzen dira (Ó Murchú, 1985:16). Mendeetan gaeleraren idazkera Europako beste hizkuntza batzuetatik urrundu zen berezko moldeak garatuz.

VIII. mendean, bikingoek Irlandari eraso ziotenean eta monasterio gehienak arpilatu zituztenean, jakitun askok atzerriratu behar izan zuten. Horrek *Old Irish*-aren amaiera ekarri zuen *Middle Irish* izenekoari hasiera emateko (900-1150).

Gaeleraren aro berri horretan aditz-sistema sinplifikatu egin zen eta Europako Iparraldetik hainbat mailegu, batez ere arrantza eta itsasoarekin zerikusia zutenak, txertatu ziren. Garai horretakoak dira hainbat literatura-lan bai bertsoan bai prosan idatziak (legendak, poema historikoak, satirak...).

1200-1600 bitartean eskola laikoekin eta literaturarekin lotuta zegoen *Early Modern Irish*-aren garaia izan zen. *Modern Irish*-aren garaia XVI.-XVII.era arte ez zen helduko. Garai horren amaieran politikan izandako istiluek aristokrazia literatura mundutik urrundu zuten. Idazteko modua herrikoia bilakatu zen eta idazkietan ahozko hizkuntza islatzen hasi zen. 1922an Estatu berria sortzearekin batera gaclera lehenengo hizkuntza ofiziala izendatu zen eta hizkuntza estandarizatzea ezinbestekotzat jo zuten.

## **7.2. Gacleraren estandarizazioa**


Estandarizazio behar hori ez zen berria; izan ere, 1913tik aurrera gaclerak hezkuntza-sisteman izandako arrakasta eta literatura-munduaren susperraldia ikusita, hizkuntza estandarizatu beharri buruzko eztabaida piztu zen.

Eztabaidaren gako idatzizko gaclerak izan behar zuten moldean zetzan. Aditu batzuen ustez, forma estandarizatuak jarraitu beharreko moldeak 1200-1650 bitarteko literatura-lanetako hizkuntzan oinarritu behar zuten. Beste batzuen iritziz, ordea, gaclerak bizirik iraungo bazuten, herriaren hizkera islatuko zuten idazteko molde bat

sortu behar zen, bide horrek emango baitzion gaurkotzeko eta modernizatzeko esperantza. Bigarren korrante horrek garaitu zuen.

Estandarizaziorako bidea latza izan zen, hiru baitziren dialekto nagusiak: *Munster Irish*, hegoalde eta hego-mendebaldekoa; *Connacht Irish*, Galway eta Mayo konderrietakoa eta *Ulster Irish*, Donegal konderrikoa, Ipar-mendebaldean. Baina hiruretako batek ez zuen behar besteko prestigiorik forma araututzat hartua izateko eta, gainera, euren arteko aldeak izugarriak ziren. Agian, Cork hiria barne zeukan-eta, Munster-ekoak izan zuen aukera gehiago Irlanda osoan zabaltzeko, baina aukera hori ez zen mamitu eta Irlandako Errepublika sortu zenean (1922an) tinko iraun zuen dialektismoak.

Estandarizazioaren zailtasuna ulertzeko garaiko gaeleraren idazkerak sortzen zituen buruhaustekak ulertu behar dira. Lehen esan bezala, gaelerak bere grafia propioa zeukan. Herriaren hizkuntza normatzat hartzea erabaki zenean, grafia hori baztertzea eta erromatarra erabiltzea erabaki zen, baina grafiaren aldaketa horrek arazo morfologikoak ere ekarri zituen. Nahiz eta aldaketa horren kontrako kanpaina ugari izan, hizkuntzaren etorkizunerako ezinbestekotzat jo zuten Europako mendebaldeko hizkuntzetara hurbiltzen baitzuen.



1922an, Irlandako Errepublika sortu bezain pronto, Dublingo gobernuak Itzulpen saila (*Translation Section of the Dáil*) sortu zuen eta lehenengo urratsak egiten hasi ziren hizkuntzaren ahoskera eta gramatika estandarizatzeko aldera. Horren kontrako kanpaina ugari izan ziren, esaterako 1928an *The Gaelic League* elkarteak aldaketarik ez egitea defendatzen zuen, gutxienez hizkuntzaren etorkizuna ziurtatuta egon arte.

35 urte igaro behar izan ziren onartutako eredia lortu arte, horrela 1957an Irlandera Batuaren Gramatika arau-emailea *Gramadach na Gaeilge agus Litriú na Gaeilge* ("The Grammar and spelling of Irish") argitaratu zen. Hasierako hainbaten kontrako jarrera gorabehera, liburuak arrakasta handia lortu zuen, liburuak kaleratu eta segituan, 1.200 ale saldu ziren lehenengo egunean bertan, eta behin eta berriz argitaratu zen (1960, 1962, 1968, 1975, 1979...).

1957tik aurrera argitaratutako hiztegiek, batez ere *De Bhaldraithe* (1959) eta *Ó Dónaill* (1977) estandarri heldu zioten, baina dena dela, arazo asko oraindik

konpondu barik eta arautu barik zeuden: arazorik handiena forma estandarren eta mintzatutako dialektoen arteko aldeak ziren.

Ahoskeraren hutsunea konpontzen ez zela ikusita, 1961ean eiretar hizkuntzalari batzuek, Tomás De Bhaldraithe-ren eskutik, alderdi fonologikoak ikertzeari ekin zioten. 1962an Hezkuntza ministerioko buru izendatuta, Aita Colmán Ó Huallacháin-ek hartu zuen alorreko zuzendaritza eta *Gaeltacht*-en burututako lan eskerga baten ondorioz, *Buntús Gaeilge* (Gaeleraren Oinarriak) ikasbidea prestatu zuen, besteak beste 1.500 hitzen ahoskera biltzen zuena. Horren ostean, 1967an, Máirtín Ó Murchú irakaslearen laguntzaz, ikus-entzunezko materialak prestatu zituen. Dublingo Gobernuak mesfidantzaz ikusi zituen irakasteko aldaketa horiek, Huallacháin kanporatua izan zen eta ahozko irakaskuntzako plana eten egin zen. Idatzizko moldearen aldeko jarrera ere ez zen oso bestelakoa izan. Urteak pasatu ondoren ere, gaeleraz idatzitako literatura oso eskasa zen, batez ere haur-literatura.

Gaur egungo egoera oso bestelakoa da eta modelo estandar horrek menperatzen du arlo guztietan, argitalpen gehienetan erabiltzen delarik (eskola liburuak, argitalpen didaktikoak, hedabideetan...)

## **8. GAELERAREN ESTATUS JURIDIKOA. IRLANDAKO ERREPUBLIKAKO ETA IPAR IRLANDAKO GOBERNUEN HIZKUNTZA-POLITIKAK**

### **8.1. Irlandako Errepublika**

Irlandako Errepublika estatu elebiduna da eta gaeleraren estatusa 1937ko Konstituzioaren (An Bureacht)<sup>9</sup> 8. artikuluan azaltzen da. Horren arabera gaclera edo irlandera, hizkuntza nazionala denez, lehenengo hizkuntza ofiziala da eta ingelesa, ordea, bigarren hizkuntza ofiziala. Horretaz aparte, 2007ko urtarrilaren 7tik aurrera Europa Batasuneko hizkuntza ofiziala eta lan-hizkuntza da.

Konstituzioan badaude 50 puntu inguru gacleraren estatusari eta sustapenari buruzkoak. Horietaz gain, lege esparruari dagokionez, hona hemen azken urteotako legislazioari buruzko deskripzioa:

---

<sup>9</sup> Ikusi <http://www.irlgov.ie>

## - Acht na dTeangacha Oifigiúla 2003 / Official Languages Act 2003)

Konstituzioaren 8. artikuluan ezarritakoa betetzeko asmotan, Hizkuntza Ofizialen Legea (*Acht na d Teangacha Oifigiúla-The Official Languages Act*) 2003. urtean sartu zen indarrean. Lege honek eskaintzen du lege-marko bat administrazio publikoan ematen diren zerbitzuak gaeleraz ere eman daitezen, administratuek horrela eskatzen badute, behintzat. Horrela legez onartzen da biztanleen eskubidea gaelera erabiltzeko administrazio publiko osoan, eta, era berean, administrazioaren betebeharra zerbitzua gaeleraz emateko eta hizkuntza sustatzeko.

Legea betetzeko administrazioak zirriborro bat prestatu behar izan du, zeinean zehazten diren zein zerbitzu emango diren bakarrik gaeleraz, zeintzuk ingeleraz eta zeintzuk bi hizkuntzetan. Gainera, urte horretan gaeleraz ematen ez ziren zerbitzuak zehaztutako denbora-epe baten (hiru urtekoa baino gutxiagokoa) ematen hasteko hartu beharreko neurriak zehaztu ziren.

Erakunde publikoetan lege honek ezartzen duena benetan betetzen dela ziurtatzeko **An Coimisinéir Teanga**<sup>10</sup> sortu zen. Bere funtzioen artean ondokoak daude: jendearen kexak aztertzea, administrazioan jendearen hizkuntza-eskubideak betetzen direla ziurtatzea eta erakunde publikoei legearen inguruko aholkuak eskaintzea.

## - An tAcht Craolacháin 2001 / Broadcasting Act 2001

Hedabideak arautzeko lege honen baitan gaeleraren sustapenerako hainbat neurri biltzen dira, esaterako:

- Gaeleraz egindako saio-kopuru zehatza eskaintzea. Saio horiek eduki anitzekoak izango dira: olgatzekoak, informatzekoak, irlako kultura-aniztasuna eskaintzekoak, kirolei buruzkoak, hezigarriak, erlijiosoak eta kulturalak. Horrela gaeleraz aritzen den jendeak zein hizkuntza horretan nolabaiteko interesa duen jendearen nahiak asetzeko.
- Albistegiak eta egungo gai buruzko saioak eskaintzea.

---

<sup>10</sup> Ikusi <http://www.coimisineir.ie>

**- An tAcht um Pleanáil agus Forbairt 2000 / Planning and Development Act 2000)**

Honetan ere gaeleraren sustapenerako hainbat neurri proposatzen dira.

**- An tAch um Chomhaontú na Breataine-na hÉireann 1999 / British-Irish Agreement Act 1999**

Bi gubernuen akordio honi esker, 1999ko martxoaren 8an sortu zen **An Foras Teanga** deituriko Ipar/Hegorako Hizkuntza Erakundea, hizkuntza-politika betetzen dela ziurtatzeko helburua duena. Organo honek bi agentzia ditu: **Foras nas Gaelgie** (Irlandako Hizkuntza Agentzia) eta **Tha Boord** edo **Ulstér Scotch** (Ulster-Scots Agentzia). Bere beste helburuetakoa da gaiera sustatzeko lan egiten duten erakundeak edo taldeak sortzea eta kudeatzea, esaterako: *Comhdháil Náisiúnta na Gaeilge, Gael Linn, Conradh na Gaeilge, An tOireachtas, An Comhlachas Náisiúnta Drámaíochta, Cumann na bhFiann and Comhluadar and Iontaobhas Ultach.*

**- An tAcht Oideachais 1998 / Education Act 1998**

Hezkuntzari buruzko adierazpen honetan, beste hainbat punturen artean, hezkuntzan gaiera erabiltzeko jarraibideak ezarri ziren, besteak beste:

- Lan-talde bat osatzea gaierazko testu-liburuak, bai irakasteko bai ikasteko, argitaratzeko eta hezkuntza-sisteman gaiera erabiltzeko behar besteko laguntza bideratzeko.
- Eskola zehatzetan, eta batik bat *Gaeltacht*-ekoetan, gaieraz egindako ikasketak sustatzeko eta laguntzeko aholkuak ematea.
- Lehen eta bigarren hezkuntzan indarrean dauden curriculumak egokitzeko eta hobetzeko aholkuak ematea.
- *Gaeltach*-eko ikasleen eta irakasleen beharrei erantzutea.

Lege esparruan ezarritakoa bideratu eta bete ahal izateko badaude organo sustatzaile batzuk, eta horien artean nagusiak ondokoak dira:

**- An Roinn Gnóthaí Pobail, Tuaithe agus Gaeltachta / The Department of Community, Rural and Gaeltacht Affairs<sup>11</sup>**

Irlanda osoan gaeleraren erabilera areagotzeko helburua du eta, batez ere, *Gaeltacht*-eko zonaldeetan. Horretarako estatu-politika garatzen du eta laguntza zehatzak ematen ditu. Gobernuak eman dio sail honi aparteko ardura gaelerarekin eta *Gaeltacht*-ekin zerikusirik duen guztian. Halere, sail guztiek eta organo publiko guztiek, bakoitzak bere arloan eta *Official Language Act 2003* kontuan, ardura daukate bere sailean aroka abiatuko den programa garatzeko.

**- Foras na Gaeilge<sup>12</sup>**

*North/South Implementation Body* deritzonaren barruan dago eta hizkuntza-organoa da, Irlanda osoan gaelera sustatzeko ardura duena. *Good Friday Agreement*-aren arabera sortu zen gaelera eta Ulster-Scots hizkuntzak sustatzeko.

**- Údarás na Gaeltachta<sup>13</sup>**

1980an sortu zen *Gaeltacht*-en garapenerako. Zeregin ekonomikoa du (*Gaeltacht*-en lana sustatzea, kultura eta hizkuntza ekimenak bultzatzea...). Horretarako elkarte lokalekin elkarlanean ari da.

**- Bord na Leabhar Gaeilge<sup>14</sup>**

Idazleei eta argitaletxeei laguntza ematen die, horrela ekoizpena handitzeko eta kalitatea hobetu ahal izateko.

Tresna hauek abian jarrita, bai lege-esparrua bai hori garatzeko organoak, Irlandako Errepublikako gobernuak iaz argitaratu zuen **2006ko Gaeleraren inguruko Adierazpena ( *Ráitean I Leith Na Gaeilge 2006 - Government Statement on the Irish Language 2006* )**. Horren bidez gobernuak gaelera eta *Gaeltacht* babesteko eta goratzeko bere konpromisoa berretsi zuen, irlandera ezinbestekoa baita Irlandarentzat, identitate sinboloa eta ondare unibertsala den heinean.

---

<sup>11</sup> Ikusi <http://www.pobail.ie>

<sup>12</sup> Ikusi <http://www.forasnagaeilge.ie>

<sup>13</sup> Ikusi <http://www.udaras.ie>

<sup>14</sup> Ikusi <http://www.leabhar.ie>

Jakinarazpen hau 20 urterako plan estrategikoa da, ondoko helburu orokorretan oinarrituta:

1. Jakite-maila eta erabilera hobetzea.
2. Ahalik eta hiritar gehien elebidunak izatea (gaelera eta ingelesa).
3. *Gaeltacht* zonaldea bultzatzea eta gaelera ohiko hizkuntza duten biztanle-kopurua gehitzea.
4. Jarduera publikoan zein zerbitzu publikoan gaelera erabiltzeko aukera ematea, ez bakarrik ingelesa.
5. Gizartean gaeleraren presentzia areagotzea, herritarren erabileran, literaturan, seinaleztapenean...

Helburu horiek lortzeko jardunbideak prestatuko ditu gaelera suspertzeko jada zeuden neurriei gehitzeko eta ondorengo oinarritzko printzipio-multzoan oinarrituta:

1. Konstituzioak eta leislazioak (*The Education Act 1998, The Planning and Development Act 2000, The Broadcasting Act 2001* eta *The Official Languages Act 2003*) gaelerari ematen dioten estatus bereziari eustea.
2. *The Official Language Act* gauzatzea. Horrela herritarren eskubidea administrazioan gaelera erabiltzeko gauzatuko da eta hau horrela izateko programa egokiak jarriko dira martxan.
3. *Gaeltacht*-eko eta kanpoko hizkuntza-komunitateei adore, laguntza eta babesa ematea irlandera hurrengo belaunaldietarako transmisioa ez eteteko. Horretarako hainbat zerbitzu jarriko dira abian.
4. *Gaeltach*-i babes berezia eskaintzea, zonalde gaeleraduna den aldetik.
5. Gaelera lehen hezkuntzatik derrigorrezko ikasgaia izatea. Curriculumean sustatuko dira ahozko zein idatzizko trebetasunak, hizkuntzaren balioa gorai patuz. Horretarako inbertsioak handituko dira profesionalen etengabeko trebakuntza-saioetan, materialean eta bitartekoetan.



6. Kalitatezko hezkuntzaren aldeko apustua egitea. Lehen hezkuntzan *Gaelscoileanna* babesten jarraituko du.
7. Haur-eskola gaeleradunari laguntzea eta 3. mailako hezkuntza gaeleraz garatzea.
8. *Foras na Gaeilge*-ri laguntzen jarraitzea.
9. Gaelerazko maila handiko hedabide-zerbitzuak ziurtatzea, batez ere RTÉ, *Raidió na Gaeltacht* eta TG4ren aurrerapenei esker.
10. EBri behar besteko laguntza eta babesa ematea, gaelera hizkuntza ofiziala eta lan-hizkuntza izateko erabakia ondo bete ahal izateko.
11. Gaelera nazio-mailan bultzatzeko edo sustatzeko eta Gaeltacht-en gordetzeko eta sendotzeko, *Department of Community, Rural and Gaeltacht Affairs* izeneko saila eta horren barnean dauden agentziek eta organoek (*Foras na Gaeilge*, *Údarás na Gaeltacht* eta *Bord na Leabhar Gaeilge*) egindako lanak indarberritzea.
12. Polizian eta armadan (*Garda Síochána* eta *Defence Forces* hurrenez hurren) erabilera bultzatzea.
13. Borondatezko lanean ari den arloaren garrantzia aitortuta, laguntza ematen jarraitzea.

## 8.2. IPAR IRLANDA.

Ipar Irlandan irlandera ez da hizkuntza ofiziala baina gobernu britainiarrak 1998ko apirilaren 10ean sinatutako *Belfast Agreement* edo *Good Friday Agreement*<sup>15</sup> deituriko hitzarmenaren bidez konpromiso hartu zuen hizkuntza babesten laguntzeko. Hitzarmen horretako partehartzaile guztiek onartzen dute errespetua, ulergarritasuna eta tolerantzia Ipar Irlandako hizkuntza-aniztasunarekin (irlandera, Ulster-Scots eta beste komunitate etnikoen hizkuntzak). Gobernu britainiarrak hitz eman zuen irlandera babesteko eta erabilera suspertzeko bai eskolan, bai hedabideetan eta bai esparru pribatuan ere. Horretarako organo bat sortu zen, *North/South Ministerial Council*, bi

---

<sup>15</sup> Ikusi <http://www.nio.gov.uk/issues/agreemain.htm>

administrazioek diruz lagunduta. Organo horren zereginen artean mugaz haraindiko sei erakunde sortzea dago.

Horietako bi dira *Foras na Gaeilge*, irlanderekin zerikusia duena, eta *Tha Boord* edo *Ulster-Scotch*, Ulster-Scotch hizuntzarekin erlazionatuta.

*Foras na Gaeilge*-ren zeregina da, lehen esan bezala, administrazioetan aholkularitza-lana, bai Iparraldean bai Hegoaldean, eta erakunde publikoetan eta bestelako taldeetan bai esparru pribatuan eta sektore boluntarioetan hizkuntzarekin zerikusia duen gai orotan.

Britainiako gobernuak berretsi zuen Hizkuntza Erregional edo Gutxituen Europako Gutuna 2001eko martxoaren 27an, eta bere 3. atalean galesa, Scotch-Gaelic eta irlandera hizkuntzei bere babesa emateko konpromisoa hartu zuen. Horien artean neurri sendoak irlanderaren erabilera suspertzeko esparru publikoan. Adibidez, hezkuntzan aukera ematen du gaelera eskoletan ikasteko edo eskola gaeleradunetara joateko maila guztietan baldin eta ikasle nahikorik badago, edo bere irakaskuntza unibertsitatean edota helduentzako hezkuntza. Gainera, suspertuko du hizkuntzaren historia eta kultura irakasteko eta irakasleentzako behar besteko prestakuntza eskaintzeko.

Azken urteotan Ipar Irlandako irlanderari buruzko kezka edo ardura gero eta handiagoa izan da. 1987an gai honi buruzko gobernuaren lehenengo argitalpenak ikusi zuen argia (Sweeny, 1987). 1988an curriculum nazionalean sartu zen (DENY, 1988) eta 1991ko erroldan lehenengo aldiz agertu ziren hizkuntza honi buruzko galderak.

Administrazioari eta bere zerbitzuei dagokienez, 1949ko legezkoa, kaleen gaelerazko izenak debekatzen zituena, indargabetuta dago. Gainera, herritarrek edozein gobernu sailletara jotzeko gaelerazko idazkien bidez egin ahal dute, nahiz eta erantzuna ingelesez jaso.

Horretaz gain, gaeleraren presentzia gehitu da hedabideetan eta gobernuak hezkuntza sistemari dirua ematen dio gaelerazko materiala diseinatzeko eta eskola gaeleradunei laguntzeko.

## 9. ONDORIOAK

Nahiz eta irlandararen edo gaeleraren estatusa lehenengo hizkuntza ofiziala izan Irlandako Errepublikan, irlandar guztiek ingelesez egiten dute berba eta gutxi batzuek bakarrik gaeleraz. Independentzia lortu zuenetik gaur egun arte, gobernuaren politika linguistikoa ez da oso aktiboa edo dinamikoa izan, eta horrela hizkuntzaren gainbeherak bere bidea jarraitu du. Garai horretako estatu berriak erabakitako hizkuntza-politikaren ardatzak hiru ziren:

- Garai horretan zegoenari eustea, hau da, gaeleraren habia zen (eta gaur egun izaten jarraitzen duen) *Gaeltacht* mantentzea, zaintzea eta babestea. Azken finean, errazagoa da bizirik dauden hiztun-taldeei, jarduera-esparruei eta harreman-sareei bizirik eustea eta atentzio handiagoa eskaintzea, galdua dagoena berreskuratzea baino.
- Hiztun-kopurua handitzea horretarako hezkuntza-sistemaz baliatuz.
- Gaelerari babes legala ematea eta elikatzea.

Konstituzioak aipatzen duen estatu elebiduna sortzeko, ardatz horiek zuzenak badira ere, ez dira nahikoak, lege-esparrura mugatzen baitira. Gainera, gobernuaren jokabidea ez da beti izan oso zuzena edo koherentea. Urteetan izandako jokabide oker horren zenbait adibide dira besteak beste:

- Gaelerak ofizialtasuna lortu zuenean, administrazioak berak ez zuen gaclera administrazio-hizkuntzat hartu, lehenago biztanle gehienek ikasi behar zutela argudiatuz.
- Administrazio publikoan lan egiteko gaclera ezinbestekoa zen, baina eskatutako maila hain zen oinarrizkoa, non funtzionarioak ez ziren gai gacleraz berba egiteko. Beraz, jatorrizko hiztunek administrazioa jotzeko ezinbestean ingelesa jakin behar zuten.
- Hezkuntza sisteman indarrean zeuden eredu elebidunak eta gacleradunak indargabetu zituen.
- Hedabide gacleradunak sustatzeko aurrea ez zuen hartu.

Gainera, aipatu bezala, ardatz horiek zuzenak izanda ere, ez dira nahikoak izan eta hizkuntza bat biziberritzeko edo indarberritzeko ezinbestekoak diren alderdi batzuk kontuan hartu ez direnez, ondorioak gaur egun pairatzen ari dira. Eskola, hedabideak

eta bestelako ekimenak bultzatzea oso egokia da baina, ingelesezko mintza-jardueran guztiz murgilduta dagoen gizarte batean, horrek guztiak ezer gutxirako balio du jardunguneak eta harreman-sareak zaintzen ez badira. Hori argi eta garbi islatzen da gaeleraren ezagutza eta erabilerari buruzko datuetan: azkeneko urteotan hiztun-kopurua handitu da baina erabilera oso bestelako gaia da.

Gizartearen jarreraz ere hainbat gauza komentatu ahal dira. Zalantza barik, gizarte-mugimenduak sekulako garrantzia izan du gaeleraren biziberritze-prozesuan; halere, elementu diferentzial moduan edo identifikazio ikurtzat erabiltzen dutenen artean zenbatek dakite? Zenbatek erabiltzen dute? Zenbatek egiten dute ikasteko ahaleginik?

Ipar Irlandaren kasuan, gaelerak inongo ofizialtasunik izan ez arren, azkeneko urteotan aldeko jarrera sumatu da gobernuaren partetik eta gaelera babesteko eta sustatzeko hainbat konpromiso hartu du. Gainera, nahiz eta oraindik ere nazionalistek zein protestanteek nor bere diskurtso politikoan erabiltzen jarraitu, egindako ikerketa batzuetatik ondorioztatzen da bai protestanteek bai katolikoek gaelerari buruzko aldeko iritzia daukatela. Halere, oraindik lan handia egin behar da bertako egoera linguistikoa hobetzeko eta orain arteko konpromisoak baino askoz gehiago behar dira.

## BIBLIOGRAFIA

---

**ALVAREZ ENPARANTZA, J.L. (1995):** Eireko hizkuntza arazoaz. *BAT Soziolinguistika aldizkaria* 15: 55-64.

**ANTONINI, R. (1999):** Irish language use in the community and family domains in two Gaeltacht areas; a comparative analysis. University of Newcastle. Speech Department.

**DAY, R. (2004):** Radio Broadcasting in Lesser Used Languages – What Service Do These Stations Offer? Ireland as an Example. University of Limerick.

**HAMAWY, I. (2006):** ETBren Hizkuntza Politika. Doktorego tesia, EHU-UPV.

**HUGES, A.J. (2001):** Advancing the Language: Irish in the Twenty-First century. *New Hibernia Review / Iris Éireannach Nua* 5(1): 101-126.

**JONES, G. (2006):** Europako hizkuntza gutxiak eta telebista. Mercator Ikerketa eta Dokumentazio zentroa.

**KNAUER, D. (2004):** Language Policy in Scotland and Northern Ireland: Against the Background of Irish Development in the Twentieth Century. University of Aberdeen. School of Language and Literature.

**M.O. PRITCHARD, R. (2004):** Protestants and the Irish Language: Historical Heritage and Current Attitudes in Northern Ireland [<http://www.ultach.org/>].

**MAC GIOLLA, D (2000):** Planning Issues for Irish Planning Policy: “An Foras Teanga” and “Fiontair Teanga”. [<http://www.cain.ulst.ac.uk/issues/language/macgiollachriost00.htm>].

**MAC GIOLLA, D. (2002):** Language Planning in Northern Ireland. *Current Issues in Language Planning* 3(4): 425-476.

**MERCATOR-EDUCATION (1997):** The Irish Language in Education in Northern Ireland

**MERCATOR-EDUCATION (2001):** The Irish Language in Education in the Republic of Ireland.

**MORIARTY, M.(2006):** The impact of minority language broadcasting on attitudes to and the use of minority languages: The case of TG4. University of Limerick.

**Ó LAROIRE, M. (1997):** The Standardization of Irish Spelling: an Overview. *Journal of the Simplified Spelling Society*, J22, 19-23

**O'CONNELL, E. (2003):** Serving Our Purposes: audiovisual media, language planning and minority languages. Mercator International Symposium on Minority Languages and Research (April 2003)

**RICE, PAT (1995):** Irlandera gaur egun: dimentsio herrikoia. *BAT Soziolinguistika aldizkaria* 15: 45-54.

**TG4 (2005):** Ceannasai's Review of 2004. [<http://www.tg4.ie/Bearla/Corp/TB2004-B.pdf>].

**TG4 (2006):** TG4 Annual Report 2005. [<http://www.tg4.ie/Bearla/Corp/TB2005-B.pdf>].

**WATSON, L. (2002):** Irish Language Broadcasting: History, Ideology and Identity. *Media Culture & Society* 24(6): 1-19.

## **WEB ORRIAK**

---

**Conradh na Gaeilge:** Promotion of Irish language in all aspects of life

[www.cnag.ie](http://www.cnag.ie)

**Department of Community, Rural and Gaeltacht Affairs**

[www.pobail.ie](http://www.pobail.ie)

**Euromosaic**

<http://www.uoc.es/euromosaic/web/document/irlandes/an/i1/i1.html>

**Foras na Gaeilge**

[www.forasnagaeilge.ie](http://www.forasnagaeilge.ie)

**Gaelport**

<http://gaelport.com>

**Gaelscoileanna:** Co-ordination organisation for all-Irish schools

[www.gaelscoileanna.ie](http://www.gaelscoileanna.ie)

**Government of Ireland**

[www.irlgov.ie](http://www.irlgov.ie)

**Ireland Census (2006)**

<http://www.cso.ie/census/documents/Final%20Principal%20Demographic%20Results%202006.pdf>

**Island Ireland**

<http://www.islandireland.com/Pages/irish.html>

**Mercator**

[www.mercator-central.org](http://www.mercator-central.org)

**Mercator-Education**

[www.mercator-education.org](http://www.mercator-education.org)

**Mercator-Media**

[www.aber.ac.uk/~merc/](http://www.aber.ac.uk/~merc/)

**Northern Ireland Census (2001)**

[www.nicensus2001.gov.uk/nica/browser/profile.jsp?profile=Cultural&mainArea=Castlereagh&mainLevel=CouncilArea](http://www.nicensus2001.gov.uk/nica/browser/profile.jsp?profile=Cultural&mainArea=Castlereagh&mainLevel=CouncilArea)

**Údarás na Gaeltachta**

[www.udaras.ie](http://www.udaras.ie)